



Hiruren arteko lehia

Maiatzaren 26an udalbatza berria aukeratzea dagokigu

IZARO ELORZA EH Bilduren alkategaia



«EH Bilduren egiteko moduari eta balore aurrerakoiei jarraipena eman nahi diegu»

Izaro Elorza Arregi (Oñati, 1983) izango da EH Bilduren alkategaia maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan. Telekomunikazioetan ingeniaria eta MVE enpresako zuzendari teknikoa da. Kirola, batez ere korrika egitea, mendia, natura, irakurtzea eta bidaiatzea dira bere zaletasunak. Justizia sozialaren eta eskubide berdintasunaren alde lan egiten duten Fiare Banka Etikoa, Goiener eta Ortuzabala elkarteetako kide da. Bere aurreneko esperientzia izango da politikagintzan eta ilusioz beterik dago EH Bilduk duela zortzi urte hasitako bideari jarraipena emateko.

Zerk bultzatu zaitu EH Bilduren alkategaia izatera?

Beti izan dut herrigintzan gehiago konprometitzeko go-goa. Gainera, azken urteotan EH Bilduk udalgintza estilo berri bat ekarri du. Bere jarduteko moduak gertutasuna eta konfiantza transmititu dit eta ez zait arrotza egiten nire burua hor ikustea. Gainera, erronka zalea ere banaiz eta horregatik eman dut urratsa.

Azken zortzi urteetan Mikel Biain buru izan duen udal gobernu taldeak egindako lan "ederra"ri segida eman nahi diozula esan duzu.

Bai, abian diren eta, arrazoi ezberdinak tarteko, egiteke geratu diren proiektuei segida emango diegu. Baina, batez ere, EH Bilduk erakutsi duen egiteko moduari eta praktikan jarri dituen balore aurrerakoiei eman nahi diegu jarraipena.

Erabaki ausartak hartu dira (kale garbiketa zerbitzuaren publikazioa, atez atekoa, oinezkoentzat espazioak irabaztea), aniztasuna kontuan hartu da, herritarren parte-hartzea sustatzeko bideak jarri dira, herrigintza sen-

dotzeko eredu berriak sortu dira (Eltzia, Eskola Kirola...), berdintasunean aurrera egin da... Beti ere herritarrekiko gertutasunez, gardentasunez eta zintzo jokatu. Gure jarduna ere bide beretik joango da, herriarekin batera, unean uneko beharrei erantzunez.

Azken urtebetean Harittu prozesuan murgilduta egon da EH Bildu, herriak dituen premia nagusiei erantzuteko ekintza plana diseinatzeko. Zein dira Oñatik gaur egun dituen lehentasunak?

Parte-hartze prozesu irekia izan da Harittu. Jende askok eta anitzak parte hartu du, nork bere ekarpena eginez, eta horrek asko aberastu du prozesua.

Lehentasunei dagokienez, lau multzotan laburbilduko nituzke:

1. Bizimodu duina pertsona guztientzat: etxebizitza eskubidea; kalitatezko enplegua; irisgarritasuna eta zaintza duinak.

2. Askatasun indibidual zein kolektiboan aurrera egiten jarraitzea: zeharkako politika feministak; desberdinen



NORTASUN PRINTZAK

- Izaro Elorza Arregi
- 35 urte
- Bi alabaren ama
- Telekomunikazioetan ingeniaria
- MVE enpresako zuzendari teknikoa

arteko elkarbizitza; herritar ororen hezkuntza eskubidea.

3. Kultura: euskal kultura sustatu; kultur azpiegiturak egokitu, eta kultura denontzat eskuragarri egitea.

4. Jasangarritasuna: mugikortasun jasangarria eta energia berritzagarriak; landa auzoak zerbitzuz hornitzea; tokiko merkataritza sustatzea.

Kiroldegia berritzeko lanek baldintzatuko dute udalaren jarduna datozen urteetan. Kezkatzen al zaitu?

Ez. Udalaren egoera ekonomikoa asko hobetu da azken zortzi urteetan; 2011n, EH Bildu gobernura iritsi zenean, zor bizia 6,2 milioikoa zen, eta gaur 0,3 milioikoa da. Gainera, 2018ko Udal Aurrekontuen likidazioak 3,4 milioiko gerakina utzi du; beraz, kiroldegiko obrari aurre egiteko eskatu beharreko mailegua 4,7 milioikoa izango da, eta ez 6,5ekoa, hasieran uste zen bezala.

Horrek urtean 400.000 €-ko finantza zama eragingo dio udalari, eta kontuan hartuta udalak urtero 1,3 milioi euroko aurrezki arrunt garbia

«Udalgintza eta herrigintza eredu berria ekarri du EH Bilduk udaletxera. Eraldaketa horren lehen urratsak eman dira, eta guk bide horretan jarraitu nahi dugu»

«Lantalde indartsua osatu dugu, herri mailan esparru ezberdinetan lanean aritu diren pertsonekin. Ilusio eta indar handiz datorrena»

daukala, bataz beste, horrek esan nahi du 900 mila euro geratuko direla bestelako inbertsioei aurre egiteko.

Aurpegi berri asko ikusi ditugu EH Bilduren hautagai zerrendan. Zer azpimarratuko zenuke bidelagun izango duzun lantaldeaz?

Udala ez du pertsona batek aurrera ateratzen, taldeak baizik, eta oso pozik nago lantaldearekin. Herri mailan esparru ezberdinetan lanean aritu izan diren pertsonen osatuta dago. Talde prestua eta anitza da, lanerako gogo, ilusio eta indar handiz dotarrrena. Gure artean oso giro ona dago eta oso motibatuta gaude. Gainera, orain arte udaletxea gidatu duen taldearen babesa eta laguntza ere izango dugu.

Azken bi agintaldietan gehiengo absolutua lortu du EH Bilduk. Zer gertatuko da maiatzaren 26an?

Itxaropentsu gaude. Apirileko hauteskundeetako emaitzek ere berretsi egin dute Oñatin EH Bilduren aldeko apustua egiten duela gehiengoak. Beraz, emaitza onak espero ditugu, baina hala izan dadin, botoa ematera joan behar da maiatzaren 26an.

Zergatik botoa EH Bilduri?

Azken zortzi urteetan erakutsi duelako egiteko beste modu bat, balore eta ideia zehatz batzuekin. Gertutasuna, gardentasuna, aniztasuna, elkartasuna ardatz dituen udalgintza eta herrigintza eredu berri bat. Zortzi urte hauetan eman dira eraldaketa horren lehen urratsak, eta guk bide horretatik jarraitu nahi dugu.

Programa aberatsa dugu, eta berau aurrera eramateko talde indartsua, motibatua eta lanerako gogoz, herrigintzan aritzeko, herriarekin eta herriarentzat. ■



HAUTAGAIEN ZERRENDIA

1. Izaro Elorza 2. Xabier Igartua 3. Anik Zubizarreta 4. Iñaki Olalde 5. Maite Anton
6. Iker Oñate 7. Susana Altuna 8. Vicente Urrutia 9. Alaitz Kortabarria 10. Asier Iraeta
11. Aritza Rueda 12. Karmelo Guridi 13. Nerea Agirre 14. Santi Ugarte
15. Amaia Goitia 16. Ander Aberasturi 17. Mertxe Arregi
18. Jose Luis Fernandez 19. Lurdes Ugarte 20. Mikel Biain

EGITASMO NAGUSIAK

GOBERNANTZA EREDUA

- Kalitatezko kudeaketa. Gardentasuna eta gertutasunean oinarrituta. Lan komunitarioaren aldeko apustua. Aurrekontu parte hartzaileen prozesuak garatuko ditugu.

GIZARTE POLITIKA

- Nagusien Kontseilua sortuko dugu. Zaintza lanen duintasuna eta kalitatea sustatuko dugu, soldata duinak bermatuz. Aniztasun funtzionala duten pertsonen oztokoak murrizten jarraituko dugu.

SOZIOEKONOMIA

- Enplegua sortzeko laguntzak indartu. Turismo Plan Estrategikoa. Tokiko merkataritzaren aldeko apustua, plan estrategikoa eginez. Azoka indartzeko plan integrala. Zona degradatuak berreskuratzeko plan integrala.

HEZKUNTZA

- Hezkuntza arloko eragileak saretzen lagundu nahi dugu. Oñatik Helduen Unibertsitatea izan dezan egingo dugu lan.

KULTURA

- Musika eskola berrituko dugu. Emakume sortzaileen lana ikusarazteko neurri zehatzak.

EUSKARA

- Euskara planak sustatuko ditugu lantegi eta komertzioetan.

LURRALDE ANTOLAMENDUA

- Olakua, San Lorentzo eta Mendiko Kale berrituko ditugu. Etxebizitza premiari erantzuteko neurri sorta. Landa eremuko auzotarren beharrak eta arazoak bideratzeko gunea sortuko dugu, eta sindikoaren figura berreskuratzeko.

BERDINTASUNA

- Emakume Txokoa sortuko dugu, eta oraindik sektore feminizatuak diren zaintza lanak duinduko ditugu.

KIROLA

- Kiroldegia eta Olaiturri berrituko ditugu.

GAZTERIA

- Emantzipazioa erraztuko duen etxebizitza politikak. Ekintzailatza kolektibo eta soziala sustatuko dugu. Ikasketarako gune berriak zabalduko ditugu.

**AINHOA GALDOS** EAJ-ren alkategaia

«EAJren egitasmoak eta kudeaketa-eredua behar beharrezkoak dira Oñatiri buelta emateko»

Ainhoa Galdos Olazar (Oñati, 1966) izango da EAJ-PNVren Alkategaia maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan. Goi Mailako Plano irakasle titulua du eta Jose de Azpiazu musika eskolan dihardu irakasle. Ainhoa Abesbatzako zuzendaria da. Herrian bizitza egitea gustatzen zaio. Irakurtzea, eskiatzea, mendian eta itsasoan ibiltzea, eta musika entzutea eta abatea dira bere zaletasunak. Hots abesbatzako kide da. Oñati berriz ere martxan jartzeko asmoz aurkezten da, EAJren programa eta kudeaketa-eredua ardatz hartuta.

UDAL HAUTESKUNDEAK 2019

Azken lau urteetan politika aktibotik aldentuta egon ondoren, bueltatzea erabaki duzu EAJren alkategai gisa. Zergatik?

Herri-proiektuan sinisten dudalako, Oñati maite dudalako eta proiektu landu eta sendoa aurrera eramateko ilusioz betetako lantaldea daukadalako onartu dut erronka hau. Erantzukizunez eta ilusioz nago; gogotsu eta lasai.

Hiru agintaldi (2003-2015) eman zenituen udaletxean (bi gobernuan eta bat oposizioan) eta beste bi (2007-2015) Gipuzkoako Batzar Nagusietan, gobernuan eta oposizioan bana. Eskarmen-tua behintzat, baduzu.

Bai, 12 urteko eskarmen-tua daukat, eta horietatik 8 udal-gobernuan. Oso gertutik bizi izan ditut herrigintza, udalgintza eta politika. Esperientzia dut udal-gobernuan, eta iruditzen zait oso garrantzitsua dela udala ondo kudeatu ahal izateko. EAJren kudeaketa edo gestio eredu-a da ezagutzen dudana eta horretxekin egingo dut lan. Gure konpromisoa da

agindutakoa betetzea; horixe da, hain zuzen, herritarrei zor dieguna, gertutasunez eta erantzukizunez beti ere.

EAJren eredua defendatu zenuen zure aurkezpenean. Zertan aldatu edo hobetuko da herria EAJk gidaritzat hartzen badu

Poztasunarekin adierazten dugu Alderdi Jeltzalearen ikuspegiak, hartutako erabakiek eta buruzagitzak lan handia egin duela Oñatiren alde. Gaur egungo Oñati, nagusiki, hiru hamarkadetan EAJk egin duen lan onaren emaitza da: ekonomia-azpiegiturak (Oñatiko Industrialdea, Olaburu Enplegu Zerbitzua, Bidebarri, Turismo-Bulegoa, Parketxea, Arrikruz...), gizarte-zerbitzuak (Eguneko Zentroa, pisu tutelatuak...), kultura-azpiegituak (Santa Ana aretoa, Gaztelekua, Kultur Etxea eta zine-aretoa, Ludoteka...), hezkuntza-zerbitzuak (udal-euskaltegia, ume migranteen hizkuntza- eta hezkuntza-arreta...).

Gainera, zorrotzak izan gara udaleko ekonomia gestio-natzen eta doitasun handiz



NORTASUN PRINTZAK

- *Ainhoa Galdos Olazar*
- *53 urte*
- *Bi alabaren ama*
- *Goi Mailako Plano irakaslea*
- *Herrian bizitza egitea, irakurtzea, eskiatzea...*

jardun dugu. Kudeaketa ona da gure zigilua; baita Euskadin ere. Gizarte kohesionatua, eta ekonomia indartsua eta lehiakorra izan da beti EAJren eredua; hain zuzen, herritar guztien ongizatearen bermea. Txanpon beraren bi aldeak dira.

Zein dira Oñatik gaur egun dituen lehentasun nagusiak?

Gure programan jasotakoak aipatuko ditut, gure jarduren oinarriak. Batetik, herritarren garbitasuna, txukuntasuna eta irisgarritasuna; bermatuko dugu Oñati adin guztikoentzako herri atseginagoa, lagunkoiagoa eta berdinagoa izatea. Oñatik, bizi-kalitate ona dauka gaur egun, eta lan egingo dugu etorkizunean ere halaxe izan dadin.

Bestetik, gizartearen zahartzea. Nerabe eta gazte-entzako aukera berriak bultzatzea ere lehentasuna da EAJrentzat; baita oñatiarren ongizatea ere. Gainera, estrategikoak dira, bai lehen sektorea, bai herriko merkataritza (dendariak, ostalariak),

«EH Bilduren udal gobernuak orain 5-6 urte zekien kiroldegian inbertsio handia egin beharko zela, eta ez du aurreztu dirurik agintaldi osoan»

«Gizarte kohesionatua, ekonomia indartsua eta kudeaketa ona dira EAJren eredua, eta horrekin egingo dugu lan»

bai enpresa txikiak eta bai autonomoak. Ezin dira ahaztu kirol- eta kultura-azpiegiturak ere. Bizikidetza, kultura, eus-kara eta partaidetza ere bai.

Kiroldegia berritzeko lanek baldintzatuko dute udalaren jarduna datozen urteetan. Kezkatzen al zaitu?

Gaur egun, udalaren egoera ekonomikoa oso kezka-garria da; ez da ondo kudeatu ofiztiarren dirua, eta zorpetze handira jo beharko du udalak. Horrexegatik agertu izan da EAJren udal-taldea hain kritiko Bilduren ekonomia-kudeaketarekin.

Gainera, kezka-garriena zera da: EH Bilduren udal-gobernuak orain 5-6 urte zekien kiroldegian inbertsio handia egin beharko zela, baina ez du inolako aurreikuspenik egin, eta ez du aurreztu dirurik legealdi osoan. Adibidez, kiroldegiko lehen faserako 8,5 milioi euro beharko dira (EAJ inbertsio horren alde dago). Bestalde, Olaiturrik beste 2,8 milioi euro behar ditu.

Beharrezkoak diren beste proiektu batzuk ere badaude: Olakua-Olapoto, Mendiko-kale eta Kasablanka-Arkitekto Lizaur eremuak eraberritzea, kanpoko igerilekua, musika-eskola, Urrutxuko zaborte-giaren 2.fasea...

Zergatik botoa EAJri?

Asko dago egiteko, eta ikus-pegia eta kudeatzeko gaitasuna behar da. Anbizioa ere bai. Oñati berriz martxan jartzera gatoz. Etorkizuneko Oñati eraiki behar eta elkar-laneko proiektua landu dugu gure lehentasunak gauzatzeko. EAJren egitasmoa eta kudeaketa-eredua behar-beharrezkoak dira Oñatiri buelta emateko eta Oñatik aurrerantzean ere bizi-kalitate paregabea izan dezan. ■



HAUTAGAIEN ZERRENDA

1. Ainhoa Galdos 2. Andoni Altuna 3. Amaia Erostarbe 4. Jon Kepa Gerrikagoitia
5. Marijo Etxegoien 6. Nerea Altube 7. Angel Biain 8. Xabier Mugarza 9. Angel Mari Biain
10. Nekane Maiztegi 11. Iñaki Madina 12. Aitor Urzelai 13. Lide Aranburu
14. Luis Anduaga 15. Margarita Mejía 16. Isidro Palacin 17. Maria Teresa Azkoitia.
18. Mikel Garcia 19. Aitor Arregi 20. Arrate Markiegi

EGITASMO NAGUSIAK

HERRI ATSEGIN BAT HERRITAR GUZTIENTZAKO

- Adin guztietarako hirigintza atsegina eta irisgarria bermatu nahi dugu: irisgarritasun-planak Olakua-Olapoton, Kasablanka-Kalezaharra-Arkitekto Lizaurren, Moyua kalean eta Mendiko kalean.
- Edukiontzia bidezko sistema jarriko dugu hondakinak batzeko; eroso, garbia eta eraginkorra da.
- Oinezko, bizikleta, patinete eta ibilgailuen arteko bizikidetzarako arautegia idatziko dugu.

GIZARTEAREN ZAHARTZEA

- Mendekotasun maila txikiko nagusiak artatzeko eguneko arretazentroa zabalduko dugu.
- Plaza gehiago eskainiko ditugu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sustatuta, San Martin egoitzan eta eguneko zentroan.

GAZTEAK, KIROLA ETA KULTURA

- Aire libreko kirol eta aisiladi aukera gehiago: kanpoko igerilekua, Pump Track pista sortuko dugu, ziklismoko entrenamenduetarako indoor gela;

San Martingo hariztia egokituko dugu, atletismo pista...

- Kultura-baliabideen eta azpiegituren egoera eta beharren azterketa egingo dugu. Musika-eskolaren inguruko hausnarketa bideratuko dugu.
- Substantzien kontsumoen eta adikzioen diagnostikoa egingo dugu adinka herri-mailan.
- Migranteen etorrerari erantzuteko plan integrala garatuko dugu.

MERKATARITZA

- Lokal hutsak bete eta belaunaldien erreleborako laguntzak emango ditugu.
- Turismo-plana bideratu herriko kulturagintza, merkataritza eta ostalaritza ere sustatzeko.

NEKAZARITZA

- Dirulaguntza-lerroa ganaduzaleek abelburuei eutsi eta kopurua gehitu ahal izateko baserritarren belaunaldi-erreleboa bermatzeko, baso-jabeek basoak eta baso-bideak garbi edukitzeko.

AITZIBER FERNANDEZ PSOE-ren alkategaia

«Oñatin badaude boto-emaila sozialistak, eta horien ahotsa izan nahi dut udaletxean»

Aitziber Fernandez Azurmendi (Oñati, 1975) izango da PSE-EE alderdiaren zerrendaburua maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan. Artearen Historian lizentziatua, Gasteizko Michelin enpresan egiten du lan eta Mendozan (Araba) bizi da egun. Pasiatzea eta mendian ibiltzea du gustuko, baita bidaiatzea ere; arte aldetik interesgarriak eta erakargarriak diren lekuetara bidaiatzea gustatzen zaio. Sozialisten ahotsa eraman nahi du udaletxera, zortzi urteren ondoren. Batez ere arlo sozialean lan egingo duela hitz ematen du.

24 urteren ondoren oñatiar bat izango da berriz ere PSE-EEren zerrendaburua. Nolatan?

Beharra zegoelako. Oñatin badaude boto-emaila sozialistak eta pena zen herriko inor ez egotea hautagai zerrendan. Helburu horrekin aurkezteko naiz, sozialistek ordezkartza izan dezaten udaletxean.

Indarkeria giroa amaitu izanak ere lagunduko zuen.

Jakina! Euskal Herrian bizi izan dugun egoerak galarazi du PSE herriko hautagaiak edukitzea, baina, zorionez, egoera aldatu da, bakean bizi gara, eta uste dut aberasgarria dela aukera ezberdinak egotea hauteskundeetan. Oñati ez da bi kolorekoa bakarrik; hemen pentsaera desberdineko jendea dago, eta ni saiatuko naiz sozialisten ahotsa izaten udaletxean.

Ez daukazu esperientziarik politikan, baina bai ilusioa.

Bai, gogo eta ilusio handia daukat herriaren alde lana egiteko. Jendea aldentzen ari da politikagintzatik, "denak

berdinak dira" esanez, eta nik uste dut denon eginbeharra dela politika prestigiatzea, gure baloreak defendatuz eta lana zintzo eginez. Bestela, nahi ez ditugun beste alderdi batzuek beteko dute toki hori.

Zein dira gaur egun Oñatik dituen behar nagusiak?

Faltan botatzen ditut haurrentzako jolastoki estaliak. Euri egunetan plazako arkupean egon behar izaten dute.

Bestetik, alokairuko etxebizitza gutxi dago herrian. Kanpotik datozen ikasleek arazo handiak dituzte pisu bat aurkitzeko, eta Arrasatera joan behar izaten dute askok. Babes ofizialeko etxeak ere gutxi daude, eta gazteak inpendizatu ezinik. Lan handia egin behar da etxebizitzaren arazoari erantzuteko.

Mugikortasun mailan, auto gehiegi ikusten dut herrian, eta aparkatzeko arazoak. Nik bizikletak alokatzeko zerbitzu publikoa ipiniko nuke, beste hainbat lekutan egiten den moduan.

San Prudentzioko autobus geltokia hobetu beharra dago, hobeto babestuz, eta



NORTASUN PRINTZAK

- **Aitziber Fernandez Azurmendi**
- **43 urte**
- **Ezkondua**
- **Artearen Historian Lizentziatua**
- **Michelin-eko langilea**

«Hemen pentsakera ezberdineko jendea dago, eta aberasgarria da aukera ezberdinak egotea hauteskundeetan»

«Alokairuko etxebizitzak eta babes ofizialekoak sustatu behar ditugu. Bizikletak alokatzeko zerbitzu publikoa ere ipiniko nuke, eta baita bosgarren edukiontzia ere; jendea kontzientziatuta dago»

zerbitzuz hornituta. Dena den, etorkizunera begira, irtenbide egokiena tranbia ipintzea izango litzateke bailarako herriak lotzeko. Garbiagoa eta erosoagoa da.

Hondakin bilketari dago-kionez, 5. edukiontzia ipiniko nuke. Uste dut jendea kontzientziatuta dagoela jada, eta edukiontzia sistema erosoagoa da herriarrentzat. Gainera, inguruko herrietan ondo funtzionatzen duela ikusi da.

Bestalde, Oñatik turismo mailan duen potentziala baliatuz, plan bat landu behar da kalitatezko zerbitzuak eskaini eta, bide batez, lan aukera berriak sortzeko.

Komertzio txikiaren arazoa ere kezkatzekoa da. Laguntza gehiago eman behar zaizkie autonomoei eta pizgarriak eman komertzio berriak irekitzeko.

Zergatik botoa PSE-EEri?

Sozialistak garelako eta ize-nak dioen moduan, arlo sozialean lan egin nahi dugulako. Apirilko hauteskundeetan ia 600 boto jaso zuen PSOEk eta baikor gaude. Animatu da-dila jendea botoa ematera. ■

Udal hauteskundeetako HISTORIKOA

2015	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EH Bildu	3.137	10
EAJ	2.475	7
PSE-EE	214	-
PP	88	-

2007	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ	1.867	7
EA	659	3
Oñati Ezkerretik	1.041	4
PP	216	1
PSE-EE	291	1
Baliogabeak	1.304	-

2011	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
Bildu	3.308	11
EAJ	1.936	6
Aralar	238	-
PSE-EE	238	-
PP	203	-
Ezker Batua	190	-
Hamaikabat	182	-

2003	BOTOAK	ZINEGOTZIAK
EAJ-EA	3.807	14
Ezker Batua	515	1
PP	361	1
PSE-EE	310	1
Baliogabeak	1.592	-

Hauteskunde Orokorrak

Oñatiko boto emaleen joerak ikusteko, apirilaren 28ko hauteskunde orokorretan dugu erreferentzia berriena. Ondoko taulan ikusten den moduan, EH Bildu izan zen alderdi bozkatuena Oñatin, 2016an baino ia 800 boto gehiago jasota, eta bigarren EAJ, ia 600 boto gehiagorekin, 2016ko hauteskunde orokorrekin alderatuz. PSE-EEk ere gora egin zuen (+207). Elkarrekin Podemosek ia 600 boto galdu ziteuen, eta Alderdi Popularrak eta Ciudadanosek ere behera egin zuten.

2019	BOTOAK
EH Bildu	2.742
EAJ	2.483
Elk. Podemos	713
PSE-EE	576
PP	135
C's	38
PACMA	21
VOX	18

Oñatin 17 zinegotzi

Herri bakoitzari zinegotzi kopuru bat dagokio daukan biztanle kopuruaren arabera. Oñatik gaur egun **11.381** biztanle dituen (azken datu ofiziala), 17 zinegotzi dagozkio, 10.001 - 20.000 biztanle artean dituzten herri guztiei bezalaxe.

Posta bidezko botoak

Maiatzaren 26ko hauteskundeetan botoa posta bidez eman nahi dutenek **maiatzaren 16ra** arteko epea dute eskaera egiteko, posta bulegoan nortasun agiria aurkeztuta.

Hautesle kopurua

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan **8.858** oñatiarrek izango dugu botoa emateko eskubidea.

Batzar Nagusiak eta Europar parlamentua

Gipuzkoako Batzar Nagusietako ordezkariak eta Europar Batasuneko parlamentukoak ere hautatu behar ditugu maiatzaren 26an. Batzar Nagusiei dagokienez, Deba-Urola barrutian 14 batzarkide aukeratzeko dira, eta bost hautagaitza izango ditugu aukeran: EAJ-PNV, PSE-EE, EH Bildu, PP eta Elkarrekin Podemos. Mikel Biain, Oñatiko egungo alkatea, da EH Bilduren zerrendaburua.

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI

Mekalki
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es





Udalak babes logistikoa emango dio ELIKAGAIEN BANKUARI

ACESMA elkarteak jarri zuen martxan Oñatiko Elikagaien Bankua 2012an gizarte bazterketa arriskuan duden herritarrei laguntzeko. Gaur egun **32 familia** dira onuradunak. **Elkarzabal** eta **CEAR-Euskadi** elkarteek ere lagunduko diote ekimenari.

ACESMA (*Asociación Cubano Extranjera Sierra Maestra*) elkarteak 2012an jarri zuen martxan Oñatiko Elikagaien Bankua, egoera larrian zeuden herritarrei laguntzeko asmoz. Urte hauetan zehar Udalak laguntza eskaini izan dio ekimenari, elikagaien banaketa egiteko lokala utzita, besteak beste. Orain, lankidetz hitzarmena sinatu dute, ardurak banatzeko, irizpideak bateratzeko eta arlo sozialean diharduten herriko beste elkarte batzuk ere (Elkarzabal eta CEAR-Euskadi) proiektuan barneratzeko. Beharra duten herritar guztiengana iristea da helburua.

Zazpi urteko ibilbidea egin du jada Oñatiko Elikagaien Bankuak gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen laguntza, eta orain lankidetz hitzarmena sinatu dute Udalak, ACESMAk, Elkarzabalek eta CEAR-Euskadik, proiektua sendotzeko eta herrian burutzen ari den funtzio sozial garrantzitsuari jarraipena emateko.

Laguntza emateko irizpideak bateratzea izan da akordioaren helburuetako bat. Orain arte, bide ezberdinetatik (ACESMA, Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Caritas, Elkarzabal...) bideratu izan dira herritarrek Elikagai Bankura. Orain, aldiz, Elkarzabal elkarteak arduratuko da onuradunen zerrenda osatzeaz, guztien artean adostutako balorazio-irizpideen



M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



Ibis Rodriguez, ACESMA elkartearen Bankuaren sortzailea, eta elikagaien garraioa eta banaketa lanetan laguntzen duten boluntarioetako batzuk: Kevin (Nikaragua), Sidi (Sahara), Marcelo (Dominikar Errepublikak) eta David (Kolonbia). Argazkian falta dira Alejandro (Kolonbia), Evelyn (Venezuela) eta Judith Madrid (Oñati).

LANKIDETZA HITZARMENA

KUDEAKETA. Oñatiko Caritasen baitan sortutako Elkarzabal elkarteak hartuko du bere gain elikagaien bankuko onuradun izan nahi duten pertsonen zerrenda osatzeko ardura, Udalarekin eta ACESMA elkartearekin adostutako balorazio-irizpideen arabera.

ELIKAGAIEN GARRAIOA. Udalak bere gain hartuko du elikagaiak Oñatira ekartzeko ardura. Bi modutara egingo du: Bergarako Elikagaien Bankutik ostiraleroko eta hileko azken ostiralean ekarri beharreko elikagaiak CEAR-Euskadi elkarteak kudeatzen duen Larrañako aterpetxeko langile eta bizilagunek ekarriko dituzte, udalak utzitako furgoneta batekin.

Bestalde, udala bera arduratuko da urtean bi edo hiru aldiz Irundik (Europako Laguntza Funtsa) ekarri beharreko elikagaien garraioaz.

BANAKETA. ACESMA elkartearen arduratuko da, orain arte bezala, elikagaien banaketa egiteaz, eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuak eta Europako Laguntza Funtsak eskatzen dituen txostenakosatzeaz.

AZPIEGITURAK. Ibarako lokala utziko dio udalak ACESMAri elikagaien banaketa egiteko. Udalak hartuko ditu bere gain lokaleko gastuak.

ARRAIPENA. Jarraipen bilerak egingo dira hiru hilean behin programan parte hartzen duten elkarte eta erakunde guztien artean.



Ibarako biltegian dago Oñatiko Elikagaien Bankua. Orain arte ACESMA elkartearen boluntarioek egin izan dute elikagaien garrarioa eta banaketa lana.



arabera. Horretarako elkarriketa bat egingo du eskatzaile bakoitzarekin, eta hautemandako beharrari erreparatuta osatuko du Elikagai Bankurako sarbidea izango dutenen zerrenda.

BABES LOGISTIKOA ETA ELKARLANA

Udalak Ibarako biltegia utziko dio ACESMAri elikagaien banaketa egiteko, eta bere gain hartuko ditu lokaleko gastuak.

Era berean, udalak bere gain hartzen du elikagaiak Oñatira

ekartzeko ardura, bai Bergaratik (Gipuzkoako Elikagaien Bankua) eta baita Irundik ere (Europako FEAD programa). Bergaratik astero ekarri behar izaten dira 'azken minutuko' elikagaiak eta hilean behin biltegitik. Lan hori egiteko udalak hitzarmena sinatu du CEAR-Euskadi elkartearekin, eta Larrañako aterpetxean dauden langileak eta errefuxiatuak arduratuko dira garraio lanaz, Udalak lagako dien furgoneta batekin.

Beraz, hitzarmen honen bidez lortzen den beste helburuetako

bat da arlo sozialean diharduten herriko beste elkarte batzuk ere (Elkarzabal, CEAR Euskadi...) proiektuan barmatzea, eta hori ere oso positiboa da.

116 ONURADUN

ACESMA elkarteak 2012an jarri zuen martxan Oñatiko Elikagai Bankua. Krisi ekonomikoaren urterik latzenetan 107 familiari laguntza ematera iritsi zen. Zorionez, familia askoren egoerak hobera egin du, eta gaur egun 32 familiak (116 pertsona) jasotzen dute dagokien elikagai sorta astean bi egunetan.

Iaz 38.409 kilo elikagai banatu zituen Oñatiko Elikagaien Bankuak; horietatik 28.216 kilo Gipuzkoako Elikagaien Bankutik jaso zituen, 8.697 kilo Europar Batasunetik, eta 1.560 kilo Oñatiko saltoki ezberdinetatik (Eroski Center, Super BM, Sustrai eta Oñati fruta dendak, eta Garai harategia). Elkarzabal elkarteak dituen ortuetatik ere jaso izan dituzte barazkiak. ■


TABERNA • JAETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



Odol ateraldiak Euskaldun Berri gelan egingo dira aurrereantzean

Maiatzaren 17an egingo da lehen ateraldia bertan 17:00etatik 19:00etara



Bidebarrieta kaleko 18an, Euskaltegiaren ondoan dago Euskaldun Berria gela

Azken hiru urteetan Enpresagintzan egin izan dira hileroko odol ateraldiak, baina Mondragon Unibertsitateko fakultatean obrak egin behar dituzte espazioak berrantolatzeko eta, beraz, ezinezkoa da odol-ateratzeak han egiten jarraitzea.

Horregatik, Oñatiko Odol Emaileen Elkarteak beste egoitza bat aurkitu behar izan du, eta herriaren erdigunean dauden lokal publikoen egokitasuna aztertu ondoren, aurrerantzean odol ateraldiak Euskaldun Berria Gelan egitea erabaki du, Udalarekin adostuta.

Bidebarrieta kaleko 18 zenbakian dago Euskaldun Berria Gela, udal euskaltegiaren aldamenean. Eta, hain zuzen, euskaltegi hiru gela ere erabiliko dituzte (2 sendagileentzat eta 1 luntxerako) odol-ateraldien egunetan. Odol emaileak euskaltegi atetik sartuko dira, eta mediku-erizainen gelatik igaro ostean pasako dira aldameneko gelara, Euskaldun Berria Gelara, odola ematera.

Odol Emaileen Elkarteko arduradunak pozik daude udalak eskaini dien lokalarekin. "Herriaren erdigunean dago eta oso egokia dela iruditzen zaigu. Odol ateraldiak egoki eta eroso egin ahal izateko baldintza guztiak betetzen ditu. Guk, arduradunok, lan gehitxoago egin beharko dugu, luntxerako jan-edanak

kanpotik ekarri beharko ditugulako, baina odol emaileentzat ez da ezer aldatuko. Ordutegia bera izango da (17:00-19:00), oinez joateko moduan dago, eta kotxez datozenentzat kiroldegiko parkina ere bertan dago".

Oñatiko Odol Emaileen Elkarteak eskerak eman nahi dizkio udalari eta, bereziki, gizarte zerbitzuetako zuzendariari, eskainitako laguntzagatik. Eta eskerrak baita ere, Enpresagintza fakultetari, azken hiru urteetan emandako erraztasun guztiengatik.

DATU KEZKAGARRIAK

Azken urteotan beherakada gertatzen ari da odol ateraldiei dagokienez.

Duela gutxira arte ia 70 gizon-emakumek ematen zuten odola hileroko, eta azkenaldian 60ra ez da iristen batz bestekoa.

Beraz, Oñatiko Odol Emaileen Elkarteak dei egiten die herritarrei, batez ere gazteei, odol emaile egin daitezen. "Oso konstanteak izan diren emaileak jubilatzen ari dira, eta horientzako erreleboa behar da. Tamalez, odolak oraindik ez dauka ordezkorik; odol beharra baldin badaukat, baten batek eman behar du. Eta odol asko behar izaten da, istripuak direla, gaixotasunak direla, ebakuntzak direla..."

Gogoratu, odol emaile izateko nahikoa dela 18 urte beteta izatea eta osasuntsu egotea. ■

«Erdigunean dago lokal berria eta oso egokia dela iruditzen zaigu. Odol emaileentzat ez da ezer aldatuko»



PILI IRAZABAL
Oñatiko odol emaileak





Etxe-Aundi
Hotela - Jantokia **
Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com







Elorregiko Bus geltokian egoten da Sanprubusa. Edariak, kafeak eta pintxoak eskaintzen ditu. Aurrerago, hanburgesak eta ogia saltzeko asmoa ere badu Jon Mujikak



'SANPRUBUSA'

Taberna-kafetegia, lau gurpilen gainean

Elorregin bizi den Jon Mujika gaztearen ekimenari esker zerbitzu berria dago San Prudentzioko autobus geltokiko aparkalekuan, 'Sanprubusa' izeneko autobus-taberna mugikorra. Elorregi auzoko bizilagunentzako topagunea izatea nahi du Mujikak, eta, gainera, zerbitzua emango dio autobus geltokiari, bidegorriari eta bertatik pasatzen den edonori. Hasiera batean asteko egun guztietan egongo da Sanprubusa Elorregin, goizetik iluntzerarte. Edariak, kafeak eta pintxoak eskaintzen ditu, baina aurrerago hanburgesak eta ogia saltzeko asmoa ere badu Mujikak. Sinadura bilketa bat egiten ere hasi da, inguruan komunak jar ditzaten eskatzeko.



**Musikarekin
hasi, hezi eta bizi...**

- 2-3 urtetik aurrera hezkuntza musikala
- Kalitatezko musika heziketa
- Musika taldean egiteko aukera
- Kontzertuak, emanaldiak...

**Izen ematea:
maiatzaren 22tik ekainaren 5era**

16:30etik 18:30era astelehenetik ostegunera

**JOSE DE AZPIAZU
MUSIKA ESKOLA**
J. Moiua Kalea 26
20560 Oñati



idazkaritza@jaspiazumusikaeskola.com
www.jaspiazumusikaeskola.com



Tel.: 943 78 31 74

TELEFONO ZENBAKI BERRIAK

Udaletxea 010
Udaltzaingoa 092

Martxoaz geroztik telefono zenbaki berriak daude udaletxera (010) eta udaltzaingora (092) deitzeko. Hiriburuetan eta beste zenbait herritan erabiltzen diren zenbaki berberak dira, motzak eta erraz gogoratzeko modukoak. Gainera telefono dei hauek dohainik dira. Baina zenbaki hauek Oñatitik bertatik egiten diren deietarako bakarrik balio dute; bestela, herriak kanpora deituz gero, orain arteko zenbakiak (943780411-Udala / 943081000-Udaltzaingoa) markatu behar ditugu.

Kiroldegiko berritze eta handitze lanen berri emateko erakusketa

Maiatzaren 9tik 19ra, Santa Ana antzokiko harrera gunean

Zubikoa kiroldegia birgaitu eta handitzeko proiektuaren berri emateko erakusketa egingo da maiatzaren 9tik 19ra Santa Ana antzokiko harrera gunean. Kiroldegian egingo diren esku-hartze eta lan nagusien berri emango da bertan 7 panelen bidez. Astelehenetik ostiralera (9:00-20:30) eta larunbatigandean (10:00-20:00) egongo da ikusgai. Gainera, **maiatzaren 13, 15 eta 17an** (17:00-19:00) eta **maiatzaren 14 eta 16an** (11:30-13:00) udaleko kirol zerbitzuko teknikari bat egongo da bertan azalpenak emateko.



Oñatiko antxiñako komertzio txikiei buruzko erakusketa

Maiatzaren 31 arte Egaña dendan (Bakardadeko Ama, 10)

Maiatzaren 9tik 31ra arte ikusgai egongo da Egaña denda (Bakardadeko Ama kalea, 10) 'Oñatiko emakumeak errekadutan. XX. mendeko komertzio txikiaren etnografia feminista' izenburua duen erakusketa. Udaren Selma Huxley Berkham ikerketa bekari esker Jone Arrazola eta Irati Garai oñatiarrek egindako lana ezagutzera eman eta esperientziak partekatzen jarraitzeko gunea eskaintzea da xedea. Asteazkenetik larunbatera (17:30-19:30) eta igandean (11:00-13:00 / 17:30-19:30) egongo da ikusgai. Gainera, **ostegunetan** (18:30) bisita gidatuak egingo dira erakusketa gunean, eta larunbatetan (11:30, Foruen plazan) gidatutako ibilaldiak herriguneko kale ezberdinetako komertzioak gogoratuz: **maiatzak 11** (Kale Zaharra), **maiatzak 18** (Bakardadeko Ama, Santa Marina...), **maiatzak 25** (Kale Barria) eta **ekainak 1** (Atzeko Kale, Portalekua).



Argk.: Gipuzkoako Hitza



Garbigunearen erabilerari buruzko oharra

Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen sailak Garbiguneen funtzionamenduari lotutako ohar bat zabaldu du, merkataria eta industria txikiei zuzenduta, batez ere. Honela dio: "Etxeetan egiten diren obra txikietako hondakinak (lurrak, errautsak, kristalak...) eraman daitezke Garbigunera, baina horretarako udalak emandako obra baimena edo baliokidea den beste agiri bat aurkeztu behar da. Baimenik gabe, erabiltzaile bakoitzak gehenez hondakin hauen 100 litro eraman ahal izango du Garbigunera hilabete bakoitzeko. Hilabete batean 100 litroko muga horretara iritsiz gero, hurrengo lau hilabeteetan ezingo du horrelako hondakinak eraman".

'Oñati beste begirada batetik'. Bisita gidatuak.

Oñatiko ondarea-ren transmisioa bermatzea xede duen 'Hurretik' egitasmoaren baitan, gidatutako bi bisita berezi egingo dira Oñatin. **Maiatzaren 18an** (11:00etan) 'Emakume ikusezinak' izenburuko ibilaldia egingo da herriko kaleetan barrena, Anton Azpiatzuk eta Turismo Bulegoko teknikariek gidatuta (euskaraz).

Bestalde, **maiatzaren 25ean** (10:00etan) 'Arte ala ondare? Arantzazu ikur' izenburua duen bisita egingo da Arantzazun, Ismael Manterolak gidatuta (euskaraz).

Dohainik izango dira bisitak. Izena emateko: turismo@onati.eus / 943783453.





HEZKUNTZA KOOPERATIBA
EUSKALDUNA

Guraso eta tutoreen arteko bilerak



Bisita gidatua

Maiatzaren 20an, astelehena

HH 0-1 urte

Ekainaren 18an, martitzena

HH 2 urte

Ekainaren 19an, eguaztena

Elkarriketa pertsonalak eta informazioa:

943 78 12 04 • txantxikuikastola.eus

Maiatza						
Al	Ar	Az	Oz	Oi	Bi	Do
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Ekaina						
Al	Ar	Az	Oz	Oi	Bi	Do
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

DEBAGOIENENKO LANBIDE HEZIKETA



**"Laneratze tasa
ia %100ekoa da
Lanbide Heziketako
zenbait ziklotan"**

Urtero bezala **GOIAZ!** Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka burutu zen Arrasaten apirilaren 8 eta 9an, Mankomunitateko Garapen Agentziak antolatuta, eskualdeko LH-ko ikastetxeekin batera. Lanbide Heziketa zer den erakutsi eta Debagoiengan dagoen eskaintzaren berri ematea zen helburua. Garai batean prestigioa galduta egon zen Lanbide Heziketa, baina gaur egun aukera oso interesgarria da DBH edo Batxilergoa amaitzen duten gazteentzat, edota titulazio beharrean dauden langileentzat. Amaia Irizarrek, Mankomunitateko Enplegu teknikariak eman dizkigu azalepnak.

Zer da Lanbide Heziketa (LH)?

Lan merkatuarekin lotura estua duen ikasketa programa da. Bi urtetan lanerako prestatzen ditu pertsonak. Gaur egun LH-ko 7 ikastetxe daude Debagoiengan eta, denera, familia profesional desberdinetako 24 ziklo ematen dituzte; Goi-Mailakoak 12 eta Erdi-Mailakoak beste hainbeste.

Goi mailako ziklo bat egiteko Batxilergoa eskatzen da, eta Erdi mailakorako DBH. Titulurik ez daukanak Helduen Eskolan presta dezake sarbide frogara

Praktikei garrantzi handia ematen zaie, ezta?

Bai. Ziklo batek 2.000 ikastordu irausten du, gutxi gora behera, eta horietatik 400 eta 600 ordu bitarte erabiltzen dira

praktikak egiteko enpresetan.

Orain, gainera, *Dual* sistemaren bidez ikasketak eta lana partekatze aukera dago ziklo gehienetan, eta *Erasmus +* programaren bidez praktikak atzerrian egiteko aukera ere bai.

Laneratze tasa ere handia da Lanbide Heziketan, ezta?

Bai, oro har, ziklo guztietan, eta industria arlokoetan, bereziki, ia %100ekoa. Lantegiak desiratzen daude ikasleak hartzeko *Dual* sistemaren bidez, eta horietako asko enpresan geratzen dira.

Hala ere, ikasle askok ikasten jarraitzea erabakitzen dute.

Bai, Lanbide Heziketak ez du aterik ixten. Erdi mailako

ziklo bat egin ostean goi mailakoa egin daiteke, eta goi mailako baten ondoren beste ziklo bat edo unibertsitateko gradu bat ere ikas daiteke. Eta kontrako bidea egitea ere badago; hau da, unibertsitate gradua egin ostean heziketa ziklo bat ikastea.

Lanbide heziketa ez da ezeren amaiera; ziklo bat egin ondoren lanean has zaitezke, edo ikasten jarraitu. Lortu nahi den formaziora iristeko beste bide bat da.

Nori gomendatuko zenioke?

Edonori. Kalitate handiko eskaintza dugu eskualdean, eta irteera profesional asko eskaintzen dituen ibilbidea da LH. Gure leloak dioen bezala 'Lanbide Heziketa, primerako aukera'. ■

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIENTAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

Aran Hernandez

Zure ETXEA eguneratu gureeneko inbertsio bat erabiliz bere salmenta edota alokairua erazteko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com



Lanbide Heziketaz jakin beharrekoak

IKASTETXEA

Lanbide Heziketako zazpi ikastetxe daude eskualdean:

- Mariaren Lagundia (Bergara)
- Miguel Altuna (Bergara)
- Arizmendi (Arrasate)
- Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (Arrasate)
- Aretxabaleta Lanbide Eskola (Aretxabaleta)
- Oñati Gestio Heziketa
- Larraña institutua (Oñati)

ESKAINNTZA

10 familia profesional ezberdinetako 24 ziklo eskaintzen dituzte Debagoieneko LH zentroek; horietatik 12 Goi-Mailakoak eta beste 12 Erdi-Mailakoak. Mankomunitateak sarean ipini duen eskuliburuan ikus daiteke eskualdeko LH-ko eskaintza osoa (QR kodeak eramango zaitu bertara)..



IRAUPENA

Bi urteko (2.000 ikastordu, normalean) iraupena dute lanbide heziketako zikloek, eta horietatik 400-600 ordu enpresetan praktikak egitera bideratzen dira.

'DUAL' SISTEMA

Ziklo gehienetan ikasketak eta lana uztartzeko aukera dago. Gainera, 'Erasmus+' programaren bidez, praktikak atzerrian egiteko aukera ere badago.

AURRE-MATRIKULA

Ekainean zabalitzen da aurre-matrikula epea. Inportantea da izena ematea, lehentasuna dutelako matrikula egiteko garaian.

AINHOA ULIBARRIARANA / Oñatiko Gestio Heziketako koordinazio taldekoa



"Programa Duala egiteko aukera dute gure ikasle guztiek"

Enpresen kudeaketa arloko goi mailako hiru ziklo eskaintzen ditu Oñatiko Enpresagintza fakultateko Gestio Heziketa Eskolak: *Administrazioa eta finantzak*; *Zuzendaritza Idazkaritza*; eta *Salmenta Kudeaketa*.

Erronketan oinarritzen den metodologia aktiboa aplikatzen dute Gestio Heziketan, eta eduki teknikoez gain gaur egun enpresetan eskatzen diren beste konpetentzia batzuk (talde-lana, komunikazioa, erabakiak hartzeko gaitasuna...) jorratzeko ahalegin berezia egiten dute. Gainera, ikasle orori eskaintzen zaio programa Duala egiteko aukera, ikasketak eta lana uztartuz. Laneratze tasa handia dute, eta, gainera, ikasle asko enpresagintza arloko gradua ikastera animatzen dira, zikloa amaitu ondoren.

AITOR GURIDI / Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketa arloko zuzendaria

"Bi urtetan titulua eskuratzeko aukera ematen du Lanbide Heziketak, eta ate guztiak zabalik uzten ditu aurrera begira"

Erdi mailako hiru ziklo (*Erizaintzako zaintza osagarriak*, *Osasun larrialdiak*, eta *Mikroinformatikako sistemak eta sareak*) eta goi mailako bat (*Gizarte- eta kirol- irakaskuntza eta animazioa*) eskaintzen ditu Arizmendi ikastolak.

Laneratze tasa altua dute, batez ere osasun arlokoak. Beste biak, goi mailako ziklo bat edo unibertsitateko gradua (IVEF, Magisteritza...) ikastera bideratuta daude.

Guridik balioan jarri nahi du Lanbide Heziketa. "Bi urteko formazioarekin titulua ofizial bat lortzen duzu eta, gainera, ikasten jarraitzeko ate guztiak zabalik daukazu. Helburu berera iristeko beste ibilbide bat da, oso praktikoa".



TXEMA, SABINO eta JABI / Oñatiko Larraña Institutuko irakasleak

"Industria arloko moduluetan %100eko laneratze tasa dugu"



Erdi mailako 3 ziklo eskaintzen ditu Larraña Institutuak: *Mekanizazioa*, *Mantentze-lan elektromekanikoa*, eta *Natur ingurunean gorputz eta kirol ekintzen gidaritza*. Hurrengo ikasturtera begira, mekanizazio arloko goi mailako ziklo bat emateko eskaera egin dute Jaurlaritzan, eta erantzunaren zain daude.

Erdi mailako hiru ziklo eskaintzen ditu Oñatiko Larraña Institutuak: *Mekanizazioa*, *Mantentze-lan elektromekanikoa*, eta *Natur ingurunean gorputz eta kirol ekintzen gidaritza*. Hurrengo ikasturtera begira, mekanizazio arloko goi mailako ziklo bat emateko eskaera egin dute Jaurlaritzan, eta erantzunaren zain daude.

Ikasle guztiek egiten dituzte praktikak enpresetan, eta sistema Duala egiteko aukera ere badago, ikasketak eta lana partekatuz. Gainera, praktikak atzerrian egiteko aukera ere badago (une honetan bi ikasle Italian daude) *Erasmus +* programaren bidez. Laneratze tasa ia %100ekoa da industria arloko zikloetan.

Adinekoen artean **erorketak prebenitzeko** tailerra



Ekainaren 3an eta 5ean
egingo da tailerra

64 urtetik gorako herritarren artean erorikoak izaten dira lesio eragile nagusiak, eta ondorio fisikoak ez ezik, psikologikoak eta sozioekonomikoak ere izaten dituzte. Horregatik, arazo horren garrantzia kontuan hartuta, erorikoak prebenitzeko tailerra egingo da Oñatin **ekainaren 3an eta 5ean**, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak eta Oñatiko udaleko Gizarte Zerbitzu eta Kirol departamentuek antolatuta. Adineko pertsonen eta euren senide edota zaintzaileei zuzenduta dago.

Ordu eta erdi inguruko (17:00-18:30) bi saio izango dira, teoria eta praktika uztartuz. Bertan azalduko dira, besteak beste: zergatik gertatzen diren erorketak eta zer egin daitekeen prebenitzeko, zein garrantzizkoak diren ohitura osasungarriak eta ariketa fisikoa, nolako laguntza teknikoak dauden eskuragarri (telelaguntza, ortopedia arloko produktuak...).

Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, 18) izango dira saioak eta bertan parte hartzeko izena eman behar da osasun zentroan, maiatzaren 31a baino lehen. Dohainik da.

Maiatzaren 31a baino lehen eman behar da izena osasun zentroan



EH Bildurentzako botoa eskatu dute hainbat gaztek eta pentsiodun talde batek

Herriko hainbat gaztek agerraldi publikoa egin dute maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan EH Bilduren aldeko botoa eskatuz. Azken urteetan aurrera pauso handiak eman direla esan zuten (berdintasunean, autogestioan, kultur sormenean, ingurumenean, gazteen emantzipazioan...) baina oraindik asko dagoela egiteko, eta determinanteak izaten jarraitu nahi dutela. Etorkizun euskaldun, ezkertiar, feminista eta abertzalea lortzeko, gazteak mobilizatzen jarraitzeko deia luzatu zuten, eta maiatzaren 26an EH Bilduren aldeko aukera egitea.

PENTSIODUNAK. Herriko pentsiodun talde batek ere agerraldia egin du EH Bildurenganako konfiantza adierazteko. Pentsio duinek ez ezik, gizarte politikek ere garrantzi handia dute adinekoen bizi baldintzetan, eta ildo horretan EH Bilduren udal taldeak hartutako neurriak goraipatu dituzte: Udal Gizarte Zerbitzuak indartzea, Eguneko Zentrorako plaza gehiago hitzartzea, Etxez Etxeko langileen lan baldintzak duintzea, Bizipoz programa... "Benetako herritasun sena erakusten duten neurriak direla eta, horregatik, EH Bilduk gure konfiantza irabazi du" adierazi dute.



Zinerako sarrerak Txandaren eskutik

TXANDA dendarien elkarteak promozio kanpaina berria jarri du abian. Oraingo honetan zinerako 50 sarrera bikoitz zozkatuko ditu, Txanda-ren txartela erabiltzen dutenen artean. Ekainaren 16ra arte erabili ahal izango dira.

'TRANSports' erakusketa

Pirinioen bi aldeetara dauden lau lurraldeetako artxiboen (Gipuzkoa, Huesca, Nafarroa eta Pirinio Atlanti-



koak) arteko elkarlanari esker 'TRANSports. Garraioitik kirolera' erakusketa ikusi ahal izango da Oñatiko Artxibo Historiko Probintzian (Ibarra zelaia, 4), maiatzaren 10etik 18ra, astegunetan (10:00-14:00 eta 17:00-20:00) eta larunbatetan (10:00-14:00).

XIX. mendetik XX.era igarotzean, zenbait garraiobide kirol bilakatu ziren eta bilakaera horren narrazioan oinarritzen da proiektua.

Lanbide Heziketa OÑATIN



Erdi Mailako Heziketa Zikloak

- ◆ Mekanizazioa
- ◆ Mantentze lan-elektromekanikoa
- ◆ Natur Ingurunean Gorputz eta Kirol ekintzen gidaritza



ATEAK ZABALIK

Maiatzak 8, 18:30
Larraña Egoitza (Larraña Auzoa 16)

AURREMATRIKULA

Ekainak 3-14

INFORMAZIOA

www.onati.net
013015aa@hezkuntza.net
943 899 300



Guztiona, guztion artean



AURREMATRIKULA

Maiatzak 2-14

INFORMAZIOA

www.onati.net
013015ac@hezkuntza.net
943 899 298



DELFB1 (Frantsez Agiria)
Euskararen Gaitasun Agiria



BATXILERGOA OÑATIN



MODALITATEAK

- ◆ Zientziak
- ◆ Giza eta Gizarte Zientziak

2019 - 2020
Hezkuntza Eskaintza



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udal



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udal

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Alde ederra

Enrike Gaztañaga

Kontzejupetik aldizkariaren aurreko aleko 'Gutunak' sailean agertzen den Santi Mendiolaren San Martin parkeko argazki bikainaren eta Antixenako parkeko gaur eguneko argazkiaren artean alde ederra dagoela esan leike, egia esateko, Antixenako gaztainondo eta platano zuhaitzak "Frankenstein-zuhaitzak" bezela katalogatu bai daitezke lasai asko.

Alde ederra, bai, ekintza berdinen aurrean; batzuk, poza sentitzen duten bitartean, beste batzuek negargurea sentitzen dutelako, baina, ondo pentsatuta, oraindik ere, Antixenara, badaezpada ere, kaskoa jantzita joateari ez diot uko egingo, eta guardasolarekin baita ere, orain ez baitago itzalik, eta zapi batekin, txori batek kaka gainera egin ezkeror garbitu ahal izateko...

Hala ere, hiri batzuetan, larretxoriak desagertzen ari direla ere entzuten da eta egia esateko ni txoria banintz, ezta ere ez nintzateke Antixenako egurrezko etxetxo batera bizitzera joango.

Hiru-lau urte pasatakoan, ikusiko ditugu ondorioak, auskalo; baina, hiru-lau urte horietan, adar batzuk moztea, egur zati batzuk moztea baino gehiago dela konturatuko ote gara?

Gora Errepublikak!

Joxe Ruiz

Apirilaren 14ko goizaldean Kale Zaharreko plazatzoko iturrian bezperan ipinitako bandera errepublikarra erre zuten ezezagunek, eta Foruen enparantzan ipinitako beste bat desagertu zen.

Penagarriak iruditzen zaizkigun era honetako ekintza tamalgarri eta zaharkituak errepikatzen direla ikusita, duela lau urte argitaratutako idatzia berreskuratu nahi izan dugu. Honela dio: 'Duela zenbait urtetik hona, apirilaren 14an



Errepublikaren bandera jarri ohi dugu lagun batzuen artean Foruen enparantzako kioskoan, gure historia hurbilekoan, baita Euskadikoan ere, gure ustez garrantzia handikoa izan zen gertakari historiko bat gogoratu eta ospatzeko.

Modu horretan, memoria aldarrikatu, oraindik ere bide bazterretan desagertutako pertsona asko daudela gogoratu, eta Frrankismoaren biktima hauekiko Justizia eta Erreparazioa esijitzen dugu. Eta bide batez, gaur egun inposatutako eta erreferendumik gabe berritutako monarkia salatze ere egiten dugu.

Gaur egungo Euskadi anitz honetan jatorri, sinesmen eta pentsakera ezberdineko pertsonak bizi gara, eta normala den moduan, badago jendea Errepublikarekin lotutako guztia arrotza egiten zaiona, eta herri honekin loturarik ez daukala uste duena. Guk errepresentatzen ditugu, eta geurekiko ere errespetu berbera eskatzen dugu.

Hala ere, mindu eta haserrarazi egiten gaitu, zenbaitzuk, Adierazpen Askatasun eskubidea gaizki ulertuz, 'zentsuratzaile asekaiz' bihurtzea, eta spray eta rotulagailuz armatuta, beraien 'ideiekin?' bat ez datorren guztia zikintzea, inork eman ez dien legitimitatea beraientzat hartuz.

Bada ordua, spray eta rotulagailuekin jolas egiteari utzi eta zuen ideiak, baldin badauzkazue, defendatzen hasteko."



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Goitik behera, abiada bizian

Lehen jaigiroko jolas bat zena, kirol bilakatu da orain. Goitibehera, Goitibera, Karrilana, Soapbox, Speeddown,... eta mila izen gehiago dira munduan zehar erabiliak inertzia kirolei buruz hitz egiteko. Gurean ere, beste behin, grabitatezko ibilgailuen lasterketaz gozatzeko aukera izango dugu Errekaldeko jaietan, maiatzaren 18an (16:00).



SERGIO GIL

Hotz-Oñatik herriari

Eduarne Bikuña (Hotz-Oñati)

Berriro ere egin dogu, egin dozue! Janarixa, umiendako fardelak, esne-hautsa, eta konpresak, ahalik eta gehixen batzeia zan gure konpromisoa, eta baita lortu be! 8.075 kg. batu dittugu!! Beste era batera esanda; 15 palet, alturan 1,60 metro dittuztenak, ZAPOREAK-ek Lesbosen daukon sukaldera fan dira zuzen-zuzenian. lazko bilketan baino, %25 geixau eman dogu oñatiarrok.

Beraz, disfrutatu daigun lorpen hau, laguntziak emuten dauen poztasunetik, eta berriz ere, herri kontzientziatu eta inplikatu bat garela erakutsi dogulako.

Hotz Oñatiko taldekidien izenian eskerrik asko, bilketan peto horia jantzi eta laguntzen arritu zariein guztixoi, bilketak egin diren dendei (Errekaldeko denda, Eroski Errekalde, Eroski Lezesarri, San Migel kooperatiba eta Super BM) eta nola ez, eskuzabaltasuna erakutsi dozuen oñatiar guztixei, benetan milla esker, laguntzen laguntziarren!!

OHARRAK ETA DEIALDIAK

'JARE KUARTELA' EKIMENAREN AURKEZPENA

Maiatzaren 15ean, asteazkena, 'JARE KUARTELA' herri ekimenaren aurkezpena egingo da kultur etxean, 18:30etan



1981lekuon KINTTO EGUNA 2019

1981eko kinttuok (1961eko irailaren 1etik 1962ko abendura arte jaixotakuok) **bagilaren/ekainaren 1ian** gure eguna ospatuko dogu Leitzan aldian: • Larraitzen hamarretakua. • Eguerdi aldera Leitzan Peru-Harri bisittau. • BAZKAIXA Izena emuteko 645 732 412 telefonora (Jabi Agirre) hots egin edota *agbeja@txantxikuikastola.eus* postara mensajia bialdu. Autobusa kontratatu eta bisita zehaztu bihar dogunez, izena emuteko epia **MARIATZAREN 20xan** bukatuko da.

ORIENTAZIO PROBA ARANTZAZUN

Igandean, maiatzak 12, Gipuzkoako IV. Orientazio Ligako 5. proba jokatu da Arantzazun, Iturrigorri ea Urbiarako bidean dauden baso eta larreetan. Eskola Kiroleko proba da eta 16 urtetik beherako neska-mutikoei zuzenduta dago.

JAIXAK ANTOLATZEN HASTEKO BILERA

Oñatiko Txosna Batzordeak deituta, herriko jaixak antolatzen hasteko lehen bilera egingo da maiatzaren 14an Santa Marina plazan (18:30).

ANE MERTZERIA



• Josteko zerak
• Lentzeria
• Umeen jantziak
Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

Gaztelekuko Sotoko zerbitzua itxi egingo da, eta Ludotekakoa emango da bertan.

Gaur egun Ludoteka kokatuta dagoen eraikinean egingo diren obrak direla eta, Ludoteka hainbat hilabetez lekuz aldatu beharrean aurkitu gara.

Herrian ditugun aukera ezberdinak aztertu ondoren, Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteriak Sailak aukerarik egokiena Ludotekako zerbitzua Gaztelekuko sotoan kokatzea zela erabaki zuen.

Gauzak horrela, jakin apirilaren azken astean aldaketa gauzatzeko lanak egin direla, eta maiatzaren 6tik aurrera Ludotekako zerbitzua Gaztelekuko sotoan aurkituko duzuela.

Aipatutakoaren ondorioz jakin Gaztelekuko Sotoko ohiko zerbitzurik ez dela egongo, apirilaren 29tik Errosaixoko jaiak pasatu arte. Hau da, Oñatiko jaiak pasatu arte. Barkatu eragozpenak.

Gaztelekuko gelak ikasteko erabiltzeko aukera.

Hainbat eragilek eta gaztek hainbatetan Gaztelekuan ikasteko aukeraren inguruan galdetu izan dute. Azkenean herriko liburutegiko ordutegiak gazteentzako hainbatetan murriztak dira. Bestalde, Gaztelekuan bilera gelak, Wiffia eta, behar izanez gero kalefakzioa ere badagoela kontuan hartuta, aproposa ikusten dute Gaztelekuan itxita dagoenean ere ikasteko aukera izatea.

Gauzak horrela, gaia aztertu ondoren, Haur eta Gazteria Batzordeak Gaztelekua ikasteko erabiltzeko aukera herriko gazteen artean zabaltzea onartu du. Honako baldintzekin:

- Gaztelekua erabiltzeko eskaera, ahal dela idatziz egingo da.
- Gaztelekua soilik ikasteko erabiliko da.
- Gaztelekuan sartzeko eta gero irteteko baldintzak Gaztelekuko Hezitzaileekin lotuko dira. (Giltza behar duten ala ez, eta abar).
- Oñatiko Udalaren aurrean, eskaera egiten duen pertsona bertan egongo den taldearen erantzulea izango da. Beraz Gazteak badakizue; Gaztelekuan ikasteko gela behar izanez gero, etorri eta lasai eskatu.

2019ko Udaleku Irekiak eta Arte Udalekuak.

Udaleku irekien izen emate epea bukatu den honetan, zenbaki batzuk eta hausnarketa txiki bat konpartitzeko moduan gaude: aurtengo izenematean, Udaleku irekietan adibidez 630 ume baino gehiagok eman baitu izena, azkeneko urtetan izan dugun igoera joerari eutsiz, eta berriro ere inoiz izan dugun kopururik altuena. Bestalde, aurtan ere Arte Udalekuetan inoizko izenematerik altuena izan dugu, osora ere 69 izenemate egon dira, iazkoa biderkatuz.

Guzti hau kudeatzeak sekulako esfortzua eskatzen dio Oñatiko Udalari, dagoeneko bagoaz bi hilabete baino gehiago Udalekuen aurreanekin. Horretaz gain, Oñatiko Udalak begiraleen zuzeneko kontratazioa egiten duenez, begirale izateko hautaketa prozesua gauzatzen dabil. Esandako haurren izenemate horri erantzun egoki bat eman ahal izateko, osora 76 begirale kontratatatu beharko baititu hilabetez, horrek suposatzen duen guztiarekin. Baina hau ere herriarentzat berri pozgarria bada, azkenean begirale horien gehiengo zabala Oñatikoa da, eta nolabait, hilabetez besterik ez bada ere, Oñatiko Udalak herriko gazte hauen laneratze munduan lehenengo bultzadatzat bat eragiten duelako.

Gauzak horrela, Udalarentzat Udalekuen kudeaketa benetako erronka eta esfortzua bada ere, poztea baino ez zaigu geratzen, baita eskerrak ematea gurengan jartzen duzuen konfiantzarengatik!

AGENDA: 19.05.11 Ludoteka ibiltaria, goizean zehar Kale Zaharrean. 19.05.21etik 19.05.26ra Sexualitate astea; astean zehar ekintza ezberdinak egongo dira. | 19.05.25 Begiraleen formakuntza Gaztelekuan.

BUZOIA



Agure batek ba omen zeukan balio handiko eta ondo gordetako arka bat. Urre eta zilar xaflez forratuta zuen. Zabaltzeko eta ixteko giltza berezia zuen. Arka altxorrez eta diruz beteta zeukanaren zurrumurrua zabalduta zegoen auzoan. Hilean behin ateratzen zen etxetik "erretiroko soldata" jasotzera. Horrelako egun batean, lapur bat sartu zitzaion etxebarruan. Kostata, eskailerapeko txokotxo ezkutuan bilatu zuen arka eta berarekin eraman zuen. Ezusteko galanta jaso zuen lapurak bere etxean arka indarrez ireki zuenean: ez diru eta ez baliozko altxorrik ez zegoen. Ondo ordenatutako eta sailkatutako orriak ikusi zituen



Bittor Madina

barruan. Orri batzuei gainbegirada bat jota, kartak eta olerkiak zirela ikusi zuen. Urtetan, agureak eta bere bikotekidea zenak heuren artean elkarri idatzitako eta oparitutako maitasun karta eta olerki ugari zeuden.

Zer egin paper multzo horiekin? Apurtu eta zakarrontzira bota? Erre? Lapurak, denok bezala, bere bihotz erdi onak bultzatuta, astero agureari karta guztiak itzultzea erabaki zuen. Batera ez. Aldiko bat. Denak itzuli arte. Horrela, agurearen helbidea jarrita eta postontzian botata, asteartero postariak ordu berdintsuan uzten zuen oparia agurearen buzoian. Hau zai zeukan leihoan. Ikusi orduko, pozez beterik bihotz taupadak areagotzen zitzaizkon. Bere bakartasunera eta zahartzarorako aspal-diko eta betiko maitasun hitzak sendagai zoragarriak zitzaizkion.

Ez dira urte asko pasa etxeko bebarruetan buzoiak jarri zire-

netik. Ez zeukatenei, postariak txirrina edo aldaba jota lurrean edo eskailera barranean uzten zien utzi beharreko apurra. Noiz-behinka, paketetxoren bat. Baita ere senitarteko, lagun, maite kuttun baten karta edo postalen bat. Ez zegoen propagandirik, ezta Bankuko agiri, eta herriko aldizkari edo urtekaririk. Egun askotan hutsik egoten zen. Zai egoten ginen ea zuloetatik ikusten ote zen oparirik. Bazuen buzoiak bere xarma.

Gaur egun, klase guztietako paperez, Bankuko sail askotako fakturez, katalogo desberdinez, bidai eta elikagaien eskaintzez, betetzen dira buzoiak. Goia jotzen du hauteskunde garaian.

Paper pila guzti horretatik, barruko sentimenduen kartak ez dira buzoietan askorik agertzen. Eta noizbaiten jasotzen ditugunean plazer handi bat izaten da behin baino gehiagotan irakurtzea, gordetzea eta erantzutea.

MARAVILLAS AUERRERA

2017ko irailean okupatu zen Maravillas gaztetxea, Iruñeako alde zaharrean. Espazio autogestionatuak iraun duen bitartean, 150 ekimenetik gora burutu dira bertan (euskaltegia, zinema, elikagai-bankua ...)

Zoritarrez, Nafar Gobernuak (eraikinaren jabeak) hasiera-hasieratik salaketa jarri zuen gaztetxearen aurka. Eta, ondorioz, Maravillasek 3 desalojo jasan behar izan ditu iraun duen denboran, azkena aurtengo urtarrilaren 20an.

Desalojo hauek tarteko, Maravillasen aldeko hainbat erresistentzia- eta elkartasun-ekintza antolatu izan dira, bai Iruñean, bai Euskal Herriko beste txoko batzuetan; gaztetxeen eta gune autogestionatuen defentsan, denak ere.

Erresistentzia- eta elkartasun- ekintza horietan, Gober-



nuak jarrera gogorra erakutsi du eta horren ondorio dira 109.000€-ko isunak, 82 auziperatu (hauetako bi oñatiarrak), 7 atxilotu, 35 pertsona baino gehiago epaituak izateko arriskuan, ehundaka zauritu eta identifikatu ...

Beraz, Oñatitik ere elkartasuna adierazi nahi diogu Maravillas gaztetxeari. Horretarako, Oñatiko

hainbat auzotako jaietan, porrak antolatuko ditugu eta hortik ateratzen den dirua isunak ordaintzen laguntzeko izango da. Babes ditzagun Oñatitik ere proiektu kolektibo autogestionatuak! Auzotako jaietan har ezazu parte Maravillasen aldeko porretan!

Maravillas aurrera!

Maidar Arregi, Beñat Ugalde - Antixena Gaztetxia



COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 089 006 ✉ oinati@coinbroker.eus
🌐 www.coinbroker.eus



Amalia Igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Ilogailuen eta 0 kotara proiektuak -Eraikinen mantentze planak (PUM)
-Jarduera lizentziak -Fatxaden eraberritze energetikoa -Diru laguntzen gestioa

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati



Berdura PLAZIA

larunbatero (8:00-14:00)

HILE HONETAKO PRODUKTU AIPAGARRIAK

**BABA HAUNDIA**

Udaberriarekin batera iritsi dira aurreneko baba haundi freskoak Oñatiko azokara.

3,5€ KILOA**PERRETXIKOAK**

Kanpotik ekarritakoak badira ere, sasoiko lehen perretxikoak ere ikusi ditugu azokan.

34€ KILOA*Zenbat eta hurragokoa orduan eta gozoagoa***NEREA AGIRRE**
IZIAR GOIKOA

Oñatiko azokako klasikoetako bat dira Iziar Goiko baserriko gaztak, Nerea Agirrek azaldu digun moduan. "Amama hasi zan azokara etortzen, gero ama, eta orain ahizpa biok eta koinatua ibiltzen gara, txandaka".

Etxean amak mimoz egindako ardi-gazta saltzen dute. "Normalean ketutako gaztak, baina ketu gabeko batzuk ere ekartzen ditugu, jendeak eskatuta". Hori bai, gazta osorik erosi behar da. "Bai, zatiketan hasi ezkerro, erdiak laurdena eskatzen du eta ez dago akaberarik. Guk betiko eran saltzen dugu, osorik eta paperean batuta. Gaur egun etxean bitarteko asko ditugu gazta behar den moduan kontserbatzeko". Azokan ez ezik, baserrian bertan ere saltzen dute gazta.

Ondo ikusten du Nereak Oñatiko azoka. "Beteago dagoela iruditzen zait, eta jende ugari dabil".

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak

**653 70 45 47**

Oñati



PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

ehbildu



Zurekin OÑATI gara

- 1.- Izaro Elorza Arregi • 2.- Xabier Igartua Loidi • 3.- Anik Zubizarreta Arturo • 4.- Iñaki Olalde Altzelai • 5.- Maite Anton Leno
6.- Iker Oñate Aiaitui • 7.- Susana Altuna Ugarte • 8.- Bixente Urrutia Elexpuru • 9.- Alaitz Kortabarria Igartua
10.- Axier Iraeta Izagirre • 11.- Aritza Rueda Gonzalez • 12.- Karmelo Guridi Gallastegi • 13.- Nerea Agirre Garcia
14.- Santi Ugarte Maiztegi • 15.- Amaia Goitia Añorga • 16.- Ander Aberasturi Elkorobarrutia
17.- Mertxe Arregi Erostarbe • 18.- Jose Luis Fernandez Maure • 19.- Lurdes Ugarte Alzola • 20.- Mikel Biain Berraondo



Argk.: Ekain Muñoz

Txapela, dagokionari

Andoni Goitiak herriko bertsolari txapelketa irabazi du, bigarrenkoz jarraian

Finala hasi orduko, agurreko bertsoan esan zuen Andonik, txapela kentzeko prest zegoela, baina ez oparitzeko; alegia, berak baino saio hobe egin beharko zuela VIII. Txinparta Bertsolari Txapelketako txapela jantzi nahi zuenak. Baina ez; bera izan zen sei finalistetan erregularrarena eta distiratsuenaren. Saio borobila egin gabe ere, goi mailan aritu zen, eta ale ederrak utzi zituen gaztelekua bete zuten bertsozaleen gozamenerako.

Aurreneko ariketan hasi

zen nabarmentzen txapel-duna. Urko Egañak eta Egoitz Aizpuruk ere bertsoladi polita osatu zuen zortziko nagusian.

8ko txikian ere Andoniren bertsotako bat izan zen gus-tagarrienetako bat. La Perlan elkartu dira aita (Andoni) eta semea (Egoitz Aizpuru). Aitari bainujantzia ahaztu zaio eta kantzontzilotan sartu da:

*Bainujantzirik gabe
hona natorrela,
pentsatuko zenuen
naizela ergela.
Baina ez zazu hasi*

*horregatik gerla,
Kontxa falta zait baina
badauzkat bi perla*

Hirugarren ariketan bertso bana osatu behar izan zuten 10eko txikian, hitza emanda. Ez zen inor nabarmendu bereziki. Eta bakarkako lanean ere berriro gailendu zen Andoni, bi bertso ederrekin. Hona hemen lehenengoa, 7 puntukoa. Guraso ospetsu baten semea da Andoni; haren lanbidea hautatu du, eta bere bidea egiten ari den arren, gurasoen seme bezala

Azken sailkapena

Andoni Goitia	393
Joseba Lasagabaster	368
Urko Egaña	190
Egoitz Aizpuru	189
Urko Arregi	180
Beñat Elberdi	178

ezagutzen dute.

*Errementeiren semea
kanparaketa zuzena
eta hortik aldentzeko
oihuka ari zait sena.
Gustora emango nuke
erantzun borde ozena,
oraindik adarretatik
ez baitut heldu zezena.
Eta berdin jarraitzea
izaten da errezena
baina zertan konparatu
hura zena ni naizena,
abizenaren aurretik
idazten bada izena.*



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserriko ogia,
egurrezko labean egina



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

Joseba Lasagabasterrek eta Urko Egañak ere bertso dotoreak abestu zituzten, baina Egañak poto egin zuen, eta hor galdu zituen bere aukerak.

Azkenean Lasagabasterrek eta Goitiak egin zuten aurrera buruz-burukora. Puntuka aritu ostean, 6ko motzean jardun zuten ofizioa, eta hemen ere utzi zuen ale ederrik txapeldu-nak. Gurasoak hiltzen laguntzeko eskatu dien anaiak dira. Josebak ez du argi ikusten, baina Andoni prest dago laguntzeko. Bigarren bertsoan Josebak galdetzen dio ea ze eskubide duen aitari bizia kentzeko, eta hauxe Andoni-
ren erantzuna:

*Hark esanakin gabiltza
hori da lehen baldintza;
nahi ez duenak derrigorrezko
ote du bizitza.
Nahiz indarra dun murrirtza,
idatzi du eskutitza.
Kontzientzia bezain indartsua da
Haren eske-hitza.*



Lasagabaster eta Goitia buruz-burukoan

Oñatiko bertso eskolako sortzaileetako batek, Xabier San Migelek, jantzi zion txapela Andoni Goitiari, eta honek duela bi urte zendu zen Tiago Gonçalves lagunari eskaini zion.

Ederra izan da txapelketa. Bertan aritu diren 16 bertsolariak oso txukun aritu dira eta antolatzaileek ere lan bikaina egin dute. Zorionak denei.

Bost oñatiar Gipuzkoako Txapelketako sailkapen fasean



Udazkenean hasiko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, baina maiatzean sailkapen fasea jokatu da, eta Oñatiko Txinparta Bertso Eskolako bost kidek parte hartuko dute: **Aitor Tatiegi, Urko Egaña, Mainer Arregi, Gontzal Belategi** eta **Urko Arregi**.

Denera, 84 bertsolarik parte hartuko dute, bi multzotan banatuta, eta puntuazio altuena lortzen duten multzo bakoitzeko 17 bertsolarik eskuratuko dute irailean hasiko den Gipuzkoako Txapelketan parte hartzeko txartela, dagoeneko sailkatuta dauden 14 bertsolariekin batera.

Joan den asteburuan jokatu ziren aurreneko saioak, eta bi oñatiar izan ziren tartean. **Tatiegi** (287,5 puntu) Asteasun aritu zen, eta **Egaña** (282 puntu) Orion. **Mainerrek** maiatzaren 18an abestuko du Zizurkilen, **Belategik** hilaren 19an Errezilen, eta **Urko Arregik** 25ean Bergaran.



Ate Irekien Jardunaldiak

Maiatzak 25 (larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/gmh
gmh.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP



Iker Zubizarreta, Oñatiko Mekanikako Goi Mailako Heziketa Zikloa ikasten ari da.

Zein ikasketa egin dituzu mekatronika hasi aurretik?

19 urte ditut eta joan zen urtean bukatu nuen batxilergoa. Honetaz gain begirale titulua ere atera nuen haurrekin denbora librean aritu ahal izateko eta nahiz eta nire hasierako asmoa irakaskuntzain haritzea zen, bertako langile beharren falta eta irakasker on bat izateak dituen zailtasunak ikusirik nahiago izan nuen mekatronikako zikloan sartzea.

Bada 6 hilabete edo gehiago zikloa ikasten hasi zinela. Zer moduz ikusten duzu zure burua ikasle gisa?

Orain egiten hari naizen ikasketak benetan nik aukeraturikoak direnez esango nuke denbora hobeto aprobetxatzen dudala eta lan gehiago egiten dudala, gusturago eta motibatutago bai nago eta horek bere ondorioak bai ditu. Gainera hezkuntza formalaren bukaera geroz eta hurbilago ikusten dut eta horek ere motibazioa indartu egiten du.

Zein iritzi duzu Mondragon Goi Eskola Politeknikoa aplikatzen duen hezkuntza metodologia praktikoari buruz?

Erronkek asko laguntzen dute ikasterak orduan, lan giroa simulatzeko egokia dela esango nuke, taldearen barruan bakoitzak ahal duena ematen du eta kide bakoitzak bere trebetasunak ballatzan ditu lana ahalik eta ondoen lortu dadin enpresa baten egiten den bezala. Gainera proiektuak guk antolatutako behar ditugu, lanari nondik ekin, bakoitzak zer egin, nola, lanaren barruan epemuga bikiak jarri lana berandu ez entregatzeko... eta hori da azken finean enpresa batean egiten dena beraz simulazio bezala oso lagungarria da.

Datorren urtera begira, heziketa zikloko 2.mailan DUAL formatua egitea pentsatzen ari al zara?

Bai, duala egiteak abantaila handiak ematen ditu, ez bakarrik ekonomikoak. Lanean hasizko klaseko teoria beste perspektiba batekin ikusten laguntzen dizu eta gainera lan hori errealitatean zelakoa den behatzeko aukera ere bai. Horregatik eta urtebeteko esperientzia irabazteagatik uste dut duala moduluetako hezkuntza modu egokiena dela bai enpresentzako eta baita ikasleentzako ere.

Eta bukatzeko, etorkizunera begira, ze asmo duzu?, ikasten jarraitzeko asmoa duzu?

Usted dut orain eginiiko ikasketak ez direla nahikoa izango etorkizunerako, teknologia asko aurreratzen ari da eta aurreratze asko du oraindik. Kalitatea hobetzeko ez bada, naturarekiko harremana hobetzeko izango da edo bestela beste zehazker, baina kontua da langileok hezkuntza konstante batean mantendu behariko garela denbora berrie heldu eta atzean ez gertatzeko.



Gipuzkoako txapeldun

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa irabazi du Aitor Tatiegik. Euskal Herriko finalean parte hartuko du, Saran, ekainaren 8an.

Oñatiko Txinparta Bertso Eskolako Aitor Tatiegik Loizdik (Oñati, 2001) irabazi du 39. Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa, bi saio eder osatuta. Ibarran jokatu zen kanporaketa irabazi zuen aurrena eta apirilaren 5ean Lasturren jokatuak finalean ere bera izan zen onena. Aner Pertiz 'Euskitze' sailkatu zen bigarren, eta Oihana Arana (aurreko bi edizioetako txapelduna), Uxue Alkorta, Imanol Albizu, Haizea Arana, Igauri Lopetegi eta Maddi Aiestaranek osatu zuten zortzikotea.

Zazpi bertso puntuagarri osatu behar izan zituzten, eta saio polita borobildu zuen oñatiarrak. "Saio orekatua egin dut, akats barik, eta hor

egon da gakoa, beharbada. Oso lasai egon naiz, asko disfrutatu dut, eta gustura nago egindako lanarekin".

Hasteko, lau oinak emanda osatu behar izan zuten bertso bana. *Ura, Uda, Guda* eta *Muga* ziren Tatiegiren oinak eta hauxe bere bertsoa:

*Faltan daukate jana
faltan dute ura.
Negua gogorra da,
gogorrago uda.
Ezin zeharkatuta
jarri dugun muga,
eurek ordaintzen dute
sortu dugun guda*

Ofiziotan ere txukun aritu zen Aitor, hala zortzikotxi-kian nola handian, eta baita puntuari erantzunez ere. Eta

bertso eder batekin borobildu zuen saioa bakarkakoan. Hauxe zen gaia: 'Ikasketak bukatu orduko lan eskaintza bat jaso duzu; etxetik ordubetera dago lantokia eta 700€ ordainduko dizkizute hilean'. Hauxe bere bertsoa:

*Magisteritza bukatu eta
ez nintzen lanerako gai.
Behin aukera bat heldu orduko
nik hara joatea nahi.
Bilbo aldean omen ditut nik
ni hara noiz joango zai;
zazpirehun euro asko ez dira,
gutxiegi ditugu ai,
kartera ez dute gizenduko ez
baina kurrikuluma bai.*

Konfiantza handiz eta sendo ari da bertsoan Aitor azkenaldian. Oñatiko txapel-

ketan ere saio oso txukuna osatu zuen, finalean sartu ez bazen ere. Eskolartekoan iritsi zaio saria. "Konfiantza emango dit txapel honek. Bertso eskolan urteetan egindako lanak merezi izan duela berresten du, eta bertsoan edozein lekutara joateko moduan nagoela".

Polita izan zen, gainera, txapela Iñaki Olalderen eskutik jasotzea, Bertsozale Elkartek Oñatiko Txinparta bertso eskolari eman baitzion txapela janzteko ohorea, urte luzez egiten ari den lana eskertuz. Xabier Agirre eta Bittor Zubiagirre bertso-kideei eskaini zien txapela Tatiegik.

Orain, ekainaren 8an Saran jokatu den Euskal Herriko finala irabazten saiatuko da.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

NOS MUEVE OÑATI BAT EGINIK

AINHOA GALDOS OLAZAR
OÑATIko ALKATEZARAKO HAUTAGAIA
CANDIDATA A LA ALCALDÍA DE OÑATI

MARKEL OLANO ARRESE
GIPUZKOAKo DIPUTATU NAGUSIRAKO HAUTAGAIA
CANDIDATO A DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA



**eaj
pnv**

EAJ-PNV.EUS



EMAN BOTOA VOTA


HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA**MAZEDONIA
TXAPELDUN**

Penaltietan hartu zuen
mendeean **Albok**.
Kopan **Larraña** nagusi

Mazedonia taldeak irabazi du aurten Herriko Futbol Txapelketa. **Albok** hartu zuen mendean, penalti jaurtiketetan, partidua 1-1 amaitu ostean. Jon Igartuak (Mazedonia) jaso zuen jokalaria onenaren saria.

Aurretik Kopa txapelketako finala jokatu zen, eta hemen **Larraña** aterpetxeko errefuxiatuek osatutako taldea izan zen nagusi. Partidua 1-1 amaitu zen eta penaltietan hartu zuten mendean **Sasquash** taldea. **Larraña**ko Ibrahima izendatu zuten finaleko jokalaria onena.

OMENALDIA. Eguneko beste protagonista nagusia Antoni Sierra izan zen. Finala hasi aurretik omenaldi hunkigarria jaso zuen beteranoen txapelketa antolatzen 30 bat urtez egindako lana eskertzeko.



Goian,
Mazedonia,
liga
txapelduna.
Eskuman,
Albok,
ligako
bigarrena



Goian,
Larraña,
kopa
txapelduna.
Eskuman,
Sasquash,
kopako
bigarrena

**AIPAMEN BEREZIAK**

GOLEGILE ONENA
(‘Bere’ saria)
Julen Palacios (Macedonia)



ATEZAIN ONENA
Aitor Sanchez
(Albok)



BETERANOENA
Iban Dominguez
(Txuskos)



KIROLTASUNA
Gaizka Palacin
(Albok)



EPAILEAK
Mattin eta Moli,
egindako lana eskertuz



Oñatin erabakiko da Emakumeen Bira

Maiatzaren 25ean jokatu da Oñati-Oñati, Emakumeen Birako azken etapa, 156 kilometro eta lau mendaterekin

Emakumeen Birako laugarren eta azken etapa jokatu da Oñatin hilaren 25ean. Oñatin hasi eta bertan amaituko da, 156 kilometroko ibilbidea osatu eta lau mendate igaro ostean: **Udana** (4,8 km / %4,6), **Atagoiti** (8 km / %5), **Untzila** (3,5 km / %2,8) eta **Asentzio** (8,7 km / %4,9).

Birako etapa erregina izango da, zalanza barik. Ia 2.000 m-ko desnibel positiboarekin, lehiatua eta ikusgarria izateko osagai guztiak ditu, eta azken sailkapenerako erabakigarria gertatuko da, ziurrenera. Txirrindulariak bi aldiz igaroko dira Oñatitik etapan zehar.

Oñatikoaren aurretik beste 3 etapa izango ditu Birak, maiatzaren 22an hasita: lurreta-lurreta (118 km.); Aduna-Amasa (112 km), eta Ametzaga de Zuia - Sta. Teodosia (100 km).

BOLUNTARIOAK BEHAR DIRA

Maiatzaren 25eko etapan txirrindularien segurtasuna bermatzeko eta probaren jarraikortasuna bermatzeko 30 bat boluntario behar dira, bidegurutzeak zaintzeko karrerak irauten duen bitartean. Eman izena helbide honetan: rlasagabaster@onati.eus.



Amanda Spratt, iazko Birako irabazlea

Women World Tour-eko talderik inportanteenek parte hartuko dute Biran. Denera 20 talde

BIRA OÑATIN - egitaraua -

MAIATZAK 11

Eskola Kirolekoekin bizikleta irteera. **Plazan, 10:00etan.**

MAIATZAK 22

Mahaingurua: 'Ahalduntzea gupilen gainean'. Agotz Iturbe (Oñati), Yolanda Muñoz (Gasteiz) eta Amaia Martioda (Gasteiz). **Pleno aretoan, 18:30etan.**

MAIATZAK 23

'Bizi' poteoa. **Plazan, 19:00etan.**

MAIATZAK 24

Fitbike siao berezia (eguraldi txarra bada, merkatu azokan). **Plazan, 18:30etan.**

MAIATZAK 25

WWT Emakumeen XXXII. Bira-ko 4. etapa. **Plazan, 13:30etan.**

caravanas



• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Otadui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Otadui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)



Espainiako txapelketara !!!

ESKUBALOIA Alazne eta Idoia Elkorobarrutia ahizpek zuzentzen duten Infantil mailako nesken taldea denboraldi bikaina egiten ari da. Aurrena Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen, Zumaiako Pulpo finalean menderatu ostean. Une honetan Euskadiko txapelketako azken fasea jokatzen ari dira Arabako (Ehariaidea) eta Bizkaiko (Kukullaga) txapeldunen aurka. Ekainaren 1ean erabakiko da. Tartean, Espainiako txapelketako sektoreko fasea jokatuko dute maiatzaren 23tik 26ra. Oraindik ez dakite non eta zeinen aurka. Sektoreko txapeldunak jokatuko du azken fasea ekainaren 3tik 8ra.

HERRIKO PILOTA TXAPELKETA

Aurten ere Herriko Pilota Txapelketa jokatuko da ekaina, uztaila eta irailean. Gizonezkoen eta emakumezkoen txapelketa bana egongo da. Oñatiarrek eta bertan bizi direnek parte hartu ahal izango dute (14 urtetik gorakoek) eta bikoteko federatu bakar onartuko da, gehienez. Bikote bakoitzak 15€ ordaindu behar du. Izena emateko azken eguna, maiatzak 19, Arrano eta Ona tabernetan



Hil ala bizikoa Azkoagainen, zapatuan

FUTBOLA Erregional Preferente mailako ligako azken partidua jokatuko da larunbatean Azkoagainen (17:30), eta erabakiorra izango da. Aloñak (3.a da sailkapenean) Urola liderraren bisita jasoko du, eta bi goleko aldearekin irabazi beharra dauka (Zumarragan 1-0 galdu zuen Aloñak) bigarren postua ziurtatu eta igoera promozioa jokatzeke. Bigarren postuan dagoen Lagun Onak taldeak Lazkao (sailkapeneko azkena) jokatuko du, eta irabaziko ez balu, Aloña lehenengo edo bigarren izan liteke, Azkoagaineko emaitzaren arabera. Beraz, hitzordu garrantzitsua domekan Azkoagainen.

Oñati-Altzo, herri arteko pilota txapelketan

PILOTA Altzo izango da Oñatiren aurkaria Herri Arteko pilota txapelketako final 1/8-etako kanporaketan. Altzon jokatuko dira joaneak maiatzaren 18an, eta Oñatin bueltakoak, hilaren 24 edo 25ean. Badirudi kanporaketa parekatua eta lehiatua izango dela, eta nagusien partiduetan egon daitekeela giltza. Zaleen laguntza ere oso inportantea izango da.

Becerra eta Azkorbebeitia Aloñan, Lariz eta Lendinez Buetraitzen

MENDI LASTERKETAK Faboritoek ez dute hutsik egin. Buetraitzeko Igoera Bertikalean Iñigo Lariz (27:16) eta Ainhoa Lendinez (34:02) izan ziren azkarrenak. Iñigo Alzola (28:25) eta Joseba Diazek (28:35) gizonetakoetan, eta Montse Vazquez (35:53) eta Maite Zabaleta oñatiarrak (36:51) emakumezkoetan osatu zuten podiuma. Lehenengo oñatiarra Axier Alonso (28:53) izan zen, 4. postuan. Eta Aloñako XV. Igoeran Walter Becerrak (2:10:00) bosgarren garaipena lortu zuen; Iker Etxeberriak (2:12:56) eta Martxel Bereauk (2:15:30). Luis Dacosta izen zen lehen oñatiarra (2:20:24), 8. postuan. Emakumezkoetan Olhana Azkorbebeitia (2:27:47) nagusi, bigarren urtez jarraian; Nahia Quincoces (2:39:10) eta Nerea Amilibia (2:49:18) igo ziren podiumera. Lehen oñatiarra, Saioa Arkonada (2:53:52), 5. postuan. Zorionak antolatzaileei.



MENDI IRTEERA / Maiatzak 19

Udalaitz mendia

Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugan dagoen Udalaitz (1.119 m.) mendira izango da Aloña Mendik maiatzeko antolatutako duen irteera. Arrasateko Udala auzotik abiatuta, tontorrera igo eta Besaide aldera jeitsiko dira, Tellamendi eta Andasto tontorretatik, Anbotoko aurpegi zorrotzaren aurrealdetik, Arrazolara jeisteko (17 km /1.150 m.+). Ez du zailtasun berezirik, baina gogorra izango da.



Irteera, goizeko 8etan postetxe parean. Izena emateko epea, maiatzak 16, Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com. Prezioa: 10€. Federatuta egon behar da.

Gualbi Aholkularitzak 30 urte baino gehiago daramatza oñatierrei zerbitzua eskaintzen. Nola deskribatuko zenukete zuen ibilbidea?

Gualbi Aholkularitzak bi bulego ditu, bata Durangon eta bestea Oñatin. Ibilbide luze honen hasieratik etengabe haziz joan gara nabarmendu nahi genuke, ondo egindako lanari eta, batez ere, gure bezeroen konfiantzari esker.

Begi bistakoa da bezeroa dela zuen balio nagusia.

Lehen unetik izan da bezeroa gure apustu nagusia. Bezeroen leialtasuna da gure balio garrantzitsuenak; urteak daramatzate gure zerbitzuan konfiantza jaritzen, eta horrek laguntzen digu betiko bezeroak mantentzen eta bezero potentzialak erakartzen.

Nolatan erabaki duzue lokala eraberritzea?

Gure burua are gehiago eza-gutarazteko, eta egungo beharretara egokitzeko modu bat izan da. Oñatiko zein inguruko profesional eta enpresariei laguntzen jarraitu nahi dugu, eta biztanleen beharrezan erantzuteko beraien eskura egon, gertutasunezko eta konfiantzazko tratua emanaz.

Zer eskaintzen diezue zuen bezeroei?

Alde batetik, arlo guztietako aholkularitza eskaintzen diegu enpresa eta autonomoei, betiere beraien beharretara egokituz. Kontabilitate, fiskalitate, merkataritza, finantza eta lan aholkularitzan espezialistak gara.

Bestalde, partikularrei zuzendutako zerbitzuak ere baditugu: kontsulta legalak, lan-arlokoak,



Euskadi Etorbideko bulegoko lan-taldea.

GUALBI AHOULKULARITZA / Instalazioak erabat berritu dituzte

“Bezeroaren leialtasuna da gure balio garrantzitsuenak”

Hiru hamarkada daramate Oñatin enpresa eta autonomoen aholkularitza kudeatzen. Nominak, gizarte segurantzak eta zerga aitortzen gestioa egiteaz gain, herritarrei ere zerbitzu pertsonalizatua eskaini die Gualbik, lan fiskalitate eta lege alorrean. Duela gutxi Euskadi Etorbidean kokatutako lokala eraberritu dutela aintzat hartuz, lan-taldearekin bildu gara esku artean duten proiektua ezagutzeko.

administrazio-gestioak, herentziak, extranjeria, jubilazio azterketak, etab. Aipatzekoa da, kanpainen bete-betean murgilduta gauden honetan, errenta-aitortpenak ere egiten ditugula.

Hau guztia aurrera eramateko profesional ezberdinak ditugu lan-taldean: abokatuak, kon-

«Partikularrei zuzendutako zerbitzuak ere baditugu. Besteak beste, errenta aitortpenak»

tu-ikuskariak, ekonomistak eta aholkulari fiskalak.

Zergatik apustu hau Oñatin?

Enpresa-ehun sendoa duen herria delako. Enpresa txiki eta ertainek sekulako indarra dute, eta hauei zerbitzu integral bat eskaintzea da gure egitekoa.



'Etxean'

Ikuskizun berria eta izen bereko diskoa dute Potx eta Lotx pailazoek

POTX eta **LOTX** pailazoen etxea barrutik ezagutzeko aukera izango dugu **'Etxean'** ikuskizun berrian. Izan ere, osabak kanpora irten beharra izan du, eta Potx eta Lotx etxean gelditu dira bakarrik. Hasieran, asperdurak jota egongo dira, zer egin jakin barik, baina laster hasiko dira bisitari desberdinak agertzen: elkarriketatzaille fin bat, sekretu handiak gordetzen dituen bizilagun xeble bat, postaria... Aukera paregabea zabalduko zaie parez pare asperdurari aurre egiteko. Zer egingo ote dute pailazo bihurri hauek? Horixe, laburbilduta, pailazo bikote oñatiarraren ikuskizun berriak kontatzen duena.

ASPERDURAREN GORAZARRE

Gaur egungo gizarteak, oro har, eta, bereziki, haurrek bizi duten gain-estimulazioaren aurkako kritika eta asperduraren aldeko alegatua edo aldarria egin nahi du ikuskizunak. "Gaur egun oso urduri ipintzen gara ez baldin badaukagu ezer egiteko. Guraso eta hezitzaileek ahaleginak eta bi egiten dituzte umeak ez daitezen aspertu. Asperdura oso gutxietsia dago; ez zaio tarterik uzten asperdurari, eta guk balioan jarri nahi dugu, asperraldi horiek abiapuntu izan ohi direlako sormena garatzeko eta gozamenerako bide berriak arakatzeko. Eta horixe erakutsi nahi du *Etxean* ikuskizunak" azaldu digute pailazoek.

KLOWN-AREN BALIOAK

Asperdurari gorazarre egiteaz gain, 'Etxean' Ikuskizunaren bidez klown-aren balioak ere transmititu nahi dituzte Potx eta Lotx pailazoek, hala nola: porrotak aukera bezala ikustea, norbere izaerari balioa ematea, sentimenduak kanporatzea, oraina bizitzea... Azken batean, klwon begirada batetik mundua ikustea. "Denok pailazoak bagina, munduak hobeto funtzionatuko luke" uste dute Potxek eta Lotxek.

Harremanetarako: potxetalotx@gmail.com

Facebook: Potx eta Lotx / Instagram: @potxetalotx





Potx eta Lotx pailazoekin batera, Danel Teran eta Ander Murillo gazteak ere ikusiko ditugu oholtza gainean, pertsonaia ezberdinei bizi emanez

FAMILIA GIROAN IKUSTEKO

Ordu eta laurdeneko ikuskizuna da 'Etxean', familia giroan ikusteko. Sketxak, kantuak, dantzak, eta pailazoen bihurrikeri eta abenturez gozatzeko aukera izango dute ikusleek. Potx (Josu Zubia) eta Lotx (Itziar Arkauz) pailazoekin batera Danel Teran eta Ander Murillo Irazan antzerki guneko gazteek ere parte hartzen dute, pertsonaia ezberdinei bizia emanez. Dekoratuaren diseinua Pernan Gofirena da.

ESTREINALDIA ARETXABALETAN


Ikuskizun berria ikusteko irrikaz bazaudete, maiatzaren 19an izango duzue aurreneko aukera, Aretxabaletako Arkupe aretoan (17:00). Oñatin ere eskainiko dute, jakina, baina oraingoz ez dago data finkorik, eta uda osterarte itxoin beharko dugu.

Ikuskizun berria Euskal Herri osora eramateko ilusioz beterik daude Potx eta Lotx. Iaz, 30 bat emanaldi egin zituzten, besteak beste Gasteiz eta Iruñeako jaietan.

'Etxean' ikuskizunaz gain, formatu txikiagoko 'Kantu eta Dantza' ikuskizuna ere badute pailazo oñatiarrek, eta hain zuzen Madalena auzoko jaietan estreinatuko dute.

DISKOA SALGAI

'Etxean' ikuskizunarekin batera izen bereko diskoa ere plazaratu dute Potx eta Lotx pailazoek. Emanaldian zehar abestu eta dantzatzeko dituzten hamar kanta biltzen ditu CDak. Josu Zubiak musikatutako abestiak dira eta letrak Oñatiko Bertso Eskolako kideek, Miren Debak eta Andoni Salamerok idatzi dituzte. Ganbara abesbatzako zenbait lagunek, Ander Urrutiak (baxua) eta Oriol Floresek (bateria) ere parte hartu dute grabazioan.



Kiku eta Mizke dendetan eskura daiteke diskoa 10 €tan.

Monitore, entrenatzaile eta gurasoentzako antzezlan



MAIATZAK 19, IGANDEA, SANTA ANA, 19:00

Eskola Kiroleko elkarteak antolatuta, Errealeko fundazioaren laguntzarekin, haurrekin aritzen diren monitore, entrenatzaile zein gurasoei zuzendutako 'Jokoz kanpo' (Borobil Teatro) ikusi ahal izango dugu Santa Ana aretoan. Futbol talde banaren ardura duten entrenatzaileak dira protagonistak. Mutil koskorrak entrenatzen dituzte, kirol honek dituen balore guztiak transmititzeko asmoz. Baina orain finala dute begien bistan. Eta finala irabazi egin nahi dute. Garaipena dute bide bakarra, nor direla frogatzeko, bizitzan jokoz kanpo ez daudela erakusteko aukera bakarra. Sarrera doan. Kiroldegian eta Txokolateixan daude eskuragai gonbidapenak.

Arte lantegia haurrentzako

MAIATZAK 25, GANDIAGA TOPAGUNEAN

'EULATE, ARG! HANDI BAT' izenburupuean, 6-12 urte arteko gazte-txoei zuzendutako arte lantegia egingo da Arantzazuko Gandiaga Topagunean maiatzaren 25ean (10:30-13:30). Prezioa: 3€. Izen-ematea: info@arantzazugandiaga.com edo 943716575 / 662181353. Arantzazu Gaur fundazioak eta Maushaus elkarteak antolatuta.



MASAJEA ETA TERAPIA ALTERNATIBOAK

- Mina ekiditeko alternatibak
- Lunbagoa, bizkarra, lepoa eta askoz gehiago

CHAOWEN

Kalegoieba 1. behea
Oñati

688 682 199
697 943 477

JUANJE MARGOAK

T. 627 818 247

MAIATZAK **16**

ENTZUNALDIAK

Musika Eskolako ikasleen entzunaldiak maiatzaren 16, 20 eta 21ean

18:30, Santa Anan



MAIATZAK **30**

IPUIN MUSIKATUA

Ameli eta xirrikituena jostunek, 6 urtetik gorakoentzako ipuin musikatua.

18:00, Liburutegian

MUSIKA

MAIATZAK 16 / 18:30 MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK

Marraski bizidunetako saionu bandak: *Pipi Kaltzaluze, Amedio, Masha eta Hartza, Willy Fog eta Dartacan*, perkusio taldearen eskutik. **Santa Ana aretoan.**

MAIATZAK 18 / 17:30 JAVI SOUND

Dantzarako giroa Javi Sound DJaren eskutik. **Pake Lekun.**

MAIATZAK 20 / 18:30 MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK

Marraski bizidunetako saionu bandak: *La abeja Maya, Los Picapiedra, The Pink Panter* eta *The Monster*, kitarra eta pandero taldeen eskutik. **Santa Ana aretoan.**

MAIATZAK 21 / 18:30 MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK

Marraski bizidunetako saionu bandak: *Santxo Kixote, Lady Bug, La abeja Maya, Los Picapiedra* eta *Ametsak ez dauka inongo mugarik*. **Santa Ana aretoan.**

AGENDA



MAIATZAK **31** arte
Erakusketa

HEGAZTI SARRASKIJALEAK

Iberiar penintsulan bizi diren hegazti sarraskijaleak ezagutzeko erakusketa. Ramon Arambarri eta Mario Bregañaren argazkiak.

Parketxean

MAIATZAK 24 / 21:00 PLAN B + KORKONES

Donostiako 'power trio' hirukotea eta Pasai Donibaneko punk-rock taldea. **Pako tabernan.**

ERAKUSKETAK

MAIATZAREN 12ra ARTE 'ARGI-ARANTZAZU'

Argi Festibalearen baitan Elisa Gallegok eta Antonio Guerrak prestatutako argazki erakusketa. Ostirala (16:30-19:30), larunbata eta igandea (11:00-14:00 / 16:30-19:30) **Arantzazuko Gandiaga Topagunean**

MAIATZAK 9 - 31 OÑATIKO EMAKUMIAK ERREKADUTAN

Selma Huxley bekari esker Irati Garai eta Jone Arrazolak egindako 'Oñatiko emakumiak errekadutan. XX. mendeko komertzio txikiaren etnografia feminista bat' azterlanarekin lotutako erakusketa, Bakardadeko Ama kaleko Egaña janari-denda izandako lokalean.

BISITA GIDATUAK

MAIATZAK 19 / 11:00 EMAKUMEA ETA TXOKOLATEA

Txokolatearen eta emakumeen arteko isotorioak. Dohainik. Erreserbak: 630431549. **Txokolateixan**

**MAIATZAK 19 / 12:00
EMAKUME IKUSEZINAK**
Herriko historian garrantzia izan duten emakumeak. Dohainik. Erreserbak: 943783453. **Turismo Bulegoan**

**MAIATZAK 25 / 10:00
'ARTE ALA ONDARE?
ARANTZAZU IKUR'**
Ismael Manterola arte kritikariaren eskutik 45-60 minutuko bisita gidatua. Dohainaik. Erreserbak: 943783453. **Arantzazun**

**EKAINAK 1 / 15:30
'ARRIKRUTZEKO
LEHOIAREN BILA'**
Abentura Arrikrutzeko kobazuloan hurrekin. Erreserbak: 943082000. **Arrikrutz-Oñatiko kobetan**

**EKAINAK 2 / 10:00
'EZAGUTU POTTOKA'**
Europako zaldirik zaharrena ezagutzeko bisita. Dohainik. Erreserbak: 670274461. **Urtiagaineko parkinean**

ETXiAN
Inmobiliaria

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi duzu?

Tel.: 943 71 61 60
Mug.: 610 381 244
www.etxian.net
Etxian f

carpintería GARIBAI aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

TAILERRAK

MAIATZAK 14 / 19:00

YOGA JARDUNALDIAK

'Yoga: hoja de ruta' hitzaldia. Hizlaria: Jesús López Mindegia (Brihaspaty). Kultur etxean.

MAIATZAK 17 / 19:00

YOGA JARDUNALDIAK

'Del palabrario al Yoga' hitzaldia. Hizlaria: Jan José Urbietta (Vashista). Ikusi yogalasarte.org/palabrario. Kultur etxean.

IPUIN KONTAKETA

MAIATZAK 30 / 18:00

IPUIN MUSIKATUA

6 urtetik gorakoentzako ipuin musikatua, Ameli eta Xirrikituén Jostunen eskutik. Gonbidapenak maiatzaren 20tik aurrera Udal liburutegian.

BERTSOLARITZA

APIRILAK 22 eta 27

AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA

LHko eta DBHko ikasleen ikasturte amaierako saio publikoak (17:30). Santa Ana aretoan.

AUZOETAKO JAIXAK

MAIATZAK 10 - 12

SAN MIGEL TXIKI JAIXAK

Facebook/San Miel Txiki Jaixak

MAIATZAK 17 - 19

ERREKALDEKO JAIXAK

Facebook/Errekaldeko Jaibatzaordea



Hileko gomendioa

1830eko Ingalaterran bikarioaren emazte elbarritua zaintzera bidaltzen du baserriar batek bere alaba gazteena. Bertan bizitzaren hainbat alderdi berri eza-gutiko ditu. Baita hondamendia zein saihestezina izan daitekeen ere.

Liburua



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16

Maiatzak 10, 11, 12, 20, 21, 29 eta 30. Ekainak 7, 8 eta 9.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22

Maiatzak 13, 14, 22, 23 eta 31. Ekainak 1 eta 2.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58

Maiatzak 15, 16, 24, 25 eta 26. Ekainak 3 eta 4.

TULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28

Maiatzak 8, 9, 17, 18, 19, 27 eta 28. Ekainak 5 eta 6.

ZINEA



Maiatzak 10 - 13

NAGUSIAK:

Vitoria, 3 de marzo

ZINE KLUBA:

Ez dago emanaldirik

GAZTETXOAK:

Ez dago emanaldirik

Maiatzak 24 - 27

NAGUSIAK:

La llorona

ZINE KLUBA:

Ez dago emanaldirik

GAZTETXOAK:

Ez dago emanaldirik

Zine-kluba: Osteguna (20:00)

Nagusia: Ostirala eta larunbata (22:30)

Igandea (19:30 eta 22:30)

Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Maiatzak 17 - 20

NAGUSIAK:

La pequeña suiza

ZINE KLUBA:

Ez dago emanaldirik

GAZTETXOAK:

Ez dago emanaldirik



MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZA BILA Neska oñatiarra eta arduratsua naiz. Etxebizitza txiki bat behar dut alokatzeko. 692264324.

GARAJE ITXIA SALGA Ugarkalde auzoko 8 zenbakian. Ate automatikoa eta 29m². Tel.: 652 735 405

ETXEBIZITZA BILA Oñatiko familia batek etxea alokairuan hartzeko behar du. Deitu: 666 741 493.

ODOL ATERALDIA

MAIATZAK 17 / 17:00-19:00

Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, kalea 18), 17:00-19:00.



Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua komprometzu gabe:

- Heriotza
- Autoak
- Bizitza
- Istripuak
- Ontziak
- Osasuna
- Etxebizitza
- Aurrezkia
- Laborantzia

Helbidea: Motxón 5, behea
638 16 79 84

mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

 Jerardo Elortza
eta Xabier Zelaia



OÑATI >

KALERIK
-
KALE



LABURBILKETA

Bi urte pasatxo dira ekin geniola gure herriko kaleei buruzko sailari. Harrezkero **bi orrialdetako 25 artikulua argitaratu ditugu** hilero aldizkari honetan: sarrera batez gain, lau lan eskaini dizkiogu Kale Zaharrari, beste lau Plaza nagusiari, sei Kale Barriari, hiru Santa Marina eta alboko kaleei, bi Mendiko kalea eta Bakardadeko Ama kaleari, eta hiru San Juan kaleari. **Herrigune historikoa aztertzen saiatu gara** batik bat, bere sorrera, bilakaera edota izendapenez heldu zaizkigun datuak eta xehetasunak adieraziz, eta bertako eraikin berezi, denda, taberna eta pertsonaia aipagarriak azpimarratuz.

Dena den, ondotxo dakigu **beste ikerketa sakonago bate-rako oinarria eta abiapuntua besterik ez dela gure azterketa hau**. Ea norbaitek heltzen dion zeregin horri. Bestalde, **azken sei-zazpi hamarkadetan** Oñatiko erdialdean zabaldu eta moldatu diren **kale, auzo eta etxe-poligono berri edo berriztatuen historia ere egiteke gelditzen da**: besteak beste, Roke Azkune, Lizaur, Lazarraga, Maria Irizar, Lizarralde, Kurtzebeide kaleak nahiz Euskadi etorbidea; Errekalde, Olakua, San Lorentzo, Ugarkalde, San Martin, Goierna eta Auzabarri poligonoak; eta Bidebarrieta, Zubibarri, Motxon, Ultzezin eta Errementari aldeko inguru zaharberrituak. Badago hor ere zer arakatu, izenen bilakaeratik hasita.

ESKERRIK BEROENAK ASKORI

Eta ez genuke amaitu gura artikulua-sorta hau, berau gauzatze-ko izan ditugun **laguntasun eta argibide ugariak gogoratu eta eskertu** barik. Izan ere, halako asmo bat burutu ahal izateko, leku askotan bilatu behar baita komeni den informazioa. Argitaratutako lanen artean, funtsezkoak gertatu zaizkigu, beste askotan bezala, **Iñaki Zumalderen *Historia de Oñate*** monografia, **Felix Ugartek** Udal Liburutegiko Aldizkarian kaleratutako hainbat ikerketa, eta elkarlanean taxututako ***Oñatiko Historia eta Arte Bilduma***. Ezin ahaztu, halaber, Gipuzkoako protokoloen artxiboan **Ramon Martin Sukia** eta **Kontxi Zabaletaren** bitartez lortu ditugun dokumentuak; eta bereziki, Oñatiko udal artxiboan **Izar Salaberrik** samurtu dizkigun materialak: batez ere, han gordetzen diren **Zulueta, Lizaur, Elortza, Plazaola, Arzuaga, Arlanzón** eta beste funts batzuetako argazkiak eta hainbat agiritako xehetasunak.

Aita Madina kalea, orduan Ikasola
kalea, 1960ko hamarkadaren hasieran.

Alabaina, **beste askorekin ere zorretan gaude**, argazki, datu, data edo albisteren bat borondate onenaz eskuratzeagatik. Bat baino gehiago aipatzeke uzteko arriskua dagoela jakinik ere, hona hemen alfabetoaren arabera gure laguntzaileen zerrenda luzea: **Joseba Agirre, Karlos Agirrebengoa, Pilar Altuna, Mari Karmen Alvarez, Bittori Anduaga, Paulo Anduaga, Arantxa Arrazola, Miren Arrazola, Felix Arregi, Iñazio Arregi, Iñigo Arregi, Joxe Arregi, Maibi Arregi, Pedro Arregi, Jabier Arriaran, Kontxita Astiazaran, Anton Azpiazu, Jose Antonio Azpiazu, Maria Pilar Dorronsoro, Anton Elortza, Maixabel Elortza, Susana Elortza, Nikolas Erostarbe, Joseba Etxeberria, Jexus Etxezarreta, Maria Elena Ezpeleta, Joxe Fernandez, Eli Galartza, Jabier Galartza, Agustin Goenaga, Beatriz Gomendio, Tomas Igartua, Iñazio Irizar, Jexus Irizar, Karmen Ituarte, Joxe Mari Jauregialtzo, Martin Jauregialtzo, Paulina Kernstock, Konrado Kernstock, Rexu Letamendi, Aratz Losada, Juantxo Madariaga, Bittor Madina, Jexus Mendizabal, Luis Mugartza, Imanol Murua, Euxebi Osa, Dorita Sukia, Agustin Ugarte, Martina Ugarte, Nikolas Ugarte, Rafael Ugarte, Xabier Ugarte, Mari Karmen Urrutia, Kontxita Urtaza, Joxe Urtzelai, Joxe Mari Urtzelai, Anton Urteaga, Sabino Zuazabeitia...** Barkatuko ahal digute, guk hala nahi gabe, izendatzeke geratu zaizkigunak. **Mila-mila esker den-deno!**



Oñatiko Udal Artxiboa

Gure beharra baduzu,
ondo-ondoan gaituzu.
Arrasaten.

Hain ondo zaindu nahi
zaitugunez, **Arratsaten** bertan
ere artatuko zaitu Zuatzu
klinikako espezialista-taldeak,
20 urtetik gorako esperientzia
duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)
20500 Mondragón
943 792 018



www.clinicazuatzu.com



(*) Itten: arrastua, pistia

Itten bat

>> Jakingarria

Baserri izenak (I)

Kontu jakiña da etxiak egundoko inportantzia euki dauela euskaldunondako; hainbesterañokua, eze etxiari emundako izena norberak hartzen eben, eta, halaxe, etxeko izena norberaren abizen edo goititzen be bihurtu izan da askotan. Horren ejemplo dittugu herriko baserri honeik danak: *Aiastui, Agerre, Altzibar, Anduaga, Arrazola, Arregi, Arrola, Azkarraga, Azkarreta, Azpilleta, Balantzategi, Baltzategi, Barrenetxe, Biain (Bixain), Billar, Elortondo, Enparantza, Errementarikua, Garaikua, Goixenetxe, Gorordo, Idigoras (Iruatz), Jauregi, Kortabarri, Lazarraga, Lizarralde, Maiztegi, Mendikua, Mugartza, Murgialdai, Murguzur, Olalde, Otadui, Otalora, Ugarte, Umerez, Urbietta, Uriarte (Uxarte), Urzelai, Zelaakoa eta Zumalde*, beste batzuen artian. Orainguan, muestrarako sei baserri aukeratu dittugu, abizenak izatiaz gain, horreittako batzuk oiñetxiak be badiranak:



Aiastui
(Olabarrieta)



Olalde
(Goribar)



Lazarraga haundi
(Torreauso)



Lizarralde
(Berezao)



Ugarte
(Olabarrieta)



Umerez
(Murgixa)

>> Ezetz asmau

Lotu auzo honeittako bizilagunen izenak euren gaitzizenakin:

- | | |
|-------------------------------------|--------------------------------|
| 1. Urrusulakuak | A. Buztin sakatzailliak |
| 2. Araozguak | B. Goitxetarrak |
| 3. Berezaukuak | C. Errondarixak |
| 4. Aurrekomendikuak | D. Babazorruak edo haizpeekuak |
| 5. Olabartakuak | E. Buztanikarak |
| 6. Zubillagakuak | F. Jakintsuak edo ilustrauak |
| 7. Lezesarrikuak | G. Lur santukuak |
| 8. Arantzazukuak | H. Laixarixak |
| 9. Aratzurtikuak (Araozgo auzaunia) | I. Matxiñuak |
| 10. Larrañakuak | J. Jitto herrikuak |

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Jabier Zulueta, Kale Zaharreko dentista

Ehun urte bete barri fan xaku **Jabier Zulueta Elortondo**, luzaruan, agustifuen eliza parian, Uriarteneko bere jaixotetxian **dentista-lanetan** jardun ondoren. Zenbat oñatiar eta ez oñatiar ezagutu ete dau haren kontsultiak hamarkada horreittan. **Berezi samarra zan** bere lanian, ezin hori ukatu. Batez be, **txandak emuteko orduan**. Makiña bat ordu itxoitten ikusten zan jentia kanpoko errajetan goizaldian fanda; hainbeste denporan zain ez egoteko, papelian izena jarri eta hurrengo etorrenari txandia pasaitteko sistemian be asmau euen batzuek.

Hala eta guztiz be, Jabierrek urte askuan eutsi otsan bere bezerixiari. **Oso hurreko tratua eukan** jentiarekin; **komestaziño atsegiñekua zan**. **Bittor Madinak** aspalditxo aldizkari honetantxe kontaitten eben moduan, Zulueta dentistiak zera esaten ei otsan: **“Miñik badakozu, etorri lasai gabian be”**. Eta kobraitteko orduan ez eben prisarik izaten: **“Egingo dogu. Hurrengo batian esango dotsut”**. Horregatik, **Andre Madalen** kantuan letxe, sarritan entzungo osten ume eta gaztetxueiri: **“Ama etorriko da pagaittera”**. Eta ama batzuetan agerketan zan, eta beste batzuetan ez. Halako pasadizo kurioso mordua eukiko eben Jabierrek bere ibilbide profesionalian. Politta izango litzake horreittako batzuk batzeia eta argittaraketia.

Ehiztari eta arrantzale saiaturia zan Jabier Zulueta. Udazkeneko kaza-denporan urtero faten zan **usotara** Gatzagara; Arabara be bai **galeperretara**. Bestela, Torrealdeitik gora **Lopiasoron** familixiak eukan etxe eta basoraiño igotia gustaitten xakon; eta, jakiña, lagunekin barriketan jardutia **Txantxiku Txoko** edo **Pago Uso** alkartian.

Gaurko argazki honek be badako bere historixatxua. Bi mutil gaztek, auzokuak eta adiskidiak, COUrako azterketak egin ondoren, agua konponketia pentsau euen 1974ko garagarriilian. **Txandia** hartzera **ordu txikittan** hurreratu Zuluataneko ate aldera, izenak **apuntaitteko papela hurrenguari emun** eta etxera bueltau ziran; goizian bixak batera hartu zittuan dentistiak. Agua zabalik “tortura-aulkixan” daguena **Gerardo Urrutia** da. Fotografixia bere lagunak, **Agustin Goenagak**, atara eben arrebiak eta koiñatuak Venezuelatik ekarri otsain kamara batekin. Jabier, 55-56 urterekin, sasoiko agiri da.

Argazkixa, oraintxe aittatu dogun lez, Agustin Goenagak ataratakua da, bere karrera luzian egindako lehenengotakua. Fotografixia ez ezik, informaziñua be samurtu dosku Agustiñek. Maibi Arregi, Kepa Elortza eta Jabier Galartzari be argibide batzuk zor dostegu. Milla esker danoiri!

62 urte, zugandik gertu, etxeko goxotasuna sortuz...

ZERKAOSTETA 3

TEL.: 943 71 10 11



centro hogar MUEBLES



ZIGARROLA 1

TEL.: 943 71 10 12

943 79 15 03

ARRASATE



grupo
amuebladora
mondragonesa

